



ISILTASUNA HAUSTERA

Heriotza oso presente dago gizartean, baina ez da asko hitz egiten gaiaz. Beharra badagoela iritzita, tertuliak antolatzen hasi dira herrian 20





10
IURTEI
OSPATZEN
DITUGU

HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.

Jose Arletxe kalea, 5
(Arretxeherriko auzoa) 20730 Azpeitia


INNOVA
HORTZ KLINIKA

 943 025 955

MILAR LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak



- ELEKTROGAILU ALKERA ZABALA
- SMART RETAIL PANTAILA BILATZEKO PROJEKTA
- GARRAIO eta INSTALAZIO ZERBITZUA
- BIKRIK ATZE EFETIBO INTEGRATUA
- OBRA eta DEKORAZIO ZERBITZUAK
- www.milar.eus OK LINE PROJEKTAK



608 313 047 (Etxetresnak)
688 616 881 (Sukalde Gunea)
Whatsapp bidezko zerbitzua.
Azkarrena!

MILAR Cooking&Chef

Sukalde Gunea



Julio Urkizko etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97



Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
Tel. 943 85 00 41

www.milar.eus



eguneroko informazioa sarean



ALDIZKARIA

UZTARRIA.EUS

ZOZKETAK,

BESTELAKO PRODUKTUAK

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

urtean 30 euro
ordainduta

943 15 03 58

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 213.a (2019ko otsaila)
Urtea. XX.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. J. Frantzesena
Webgunea.
www.uztarria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

|||2019KO OTSAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?|||



iritzia

Inkesta. Soziedadera joateko ohiturarik ba al daukazu? **13**

mamia

Elkarrizketa. Amaia Aizpuru, hezkuntzaren beharrez eta marketinaz **04**

Klik! Jose Luis Urkizuk eskaladarako listoiak egiten ditu **16**

Al-Anon elkarte. Alkoholikoen familiakoak hilean behin elkartzen dira **24**

jakiteko

Atzera begira. Txikiteo Elegante eguna antolatzen hasi ziren emakumeekin hizketan **34**

Ba al dakizu, udalak jakinarazi duenez, 6.746 herritar direla gaur egun kirol patronatuko bazkide? Uztarrria

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.




Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

AMAIA AIZPURU

MUren Enpresagintza fakultateko Marketin zuzendaria

“Hezkuntzak aldaketa beharra dauka”

“Pertsonok, bereizteko, zerbait gehiago eman beharko dugu, robotek ez daukatena”, dio. Beharrei erantzungo dien ereduan sakontzea du “erronka”.  Mailo Oiarzabal

Aurten beteko dira hogeit hamar urte Amaia Aizpuru Mondragon Unibertsitatean (MU) lanean hasi zela. 1999an hasi zen bertako Enpresagintza Fakultatean eskolak ematen. Irakasle izan da eta izaten jarraitzen du, baina horrez gain, fakultateko Marketin zuzendaria ere bada. Oñatin egiten du lan, nahiz eta Irunen eta Bilbon ere badituen egoitzak fakultateak. Zenbait gradu Madrilen, Bartzelonan, Valentzian, Mexikon eta Shanghain ere eskaintzen dituzte, eta batetik bestera ibiltzen ohituta dago. Deustuko Unibertsitatean Enpresagintza ikasia, hainbat master ere egin ditu; Nazioarteko Harremanena tartean. “Beti berritzen eta eguneratzen”, dio berak.

Nola uztartzen dira marketin eta unibertsitate kontzeptuak?

Marketina komunikazioarekin eta saltzearekin erabat lotutako zerbait bezala ulertzen dute askok. Hori bada zati bat, baina marketinaren hasiera-hasiera beti da beharrak zeintzuk diren aztertzea. Berez, marketina ondo egina bada, beharren azterketatik abiatu behar da, eta horien arabera osatu gero eskaintza. Orduan, hori da garrantzitsuena nire lanean. Nire ustez, hezkuntzak aldaketa beharra dauka. Gero eta gehiago ari zaizkigu hitz egiten industria 5.0az, gero eta robot gehiago egongo direla esaten dute, lanbide asko erabat deuseztu edo desagertu egingo dire-

DATUAK

||| **Jaio.** 1972ko apirilaren 23an.

||| **Herria.** Urrestilla. ||| **Bizitokia.** Azkoitia. ||| **Lanbidea.**

MUren Enpresagintza Fakultateko Marketin arloko zuzendaria eta irakaslea.

la... Hezkuntza eredu berarekin jarraitzen badugu, hor arazo bat dago. Lanean ari garenek ikasten eta egokitzen joan behar dugula garbi dugu, baina jende gaztearentzat ere behar da zerbait aldatzea horren guztiaren aurrean. Hori da gure eginkizun handiena: ikusi zer behar dauden, eta behar horien arabera hezkuntza ahalik eta egokiena eskaini. Eskaintza-aren barruan, aztertu behar dugu, batetik, etorkizunean zer gradu edo graduondoko izan daitezkeen beharrezkoak; baina baita ere zein metodologia diren egokie-

nak jakintzak eta konpetentziak garatzeko, hor ere aldaketa beharrezkoak dira.

Zer bilakaera izan duzue, bai zeuk, bai unibertsitateak, hogeit hamar urteotan?

Bilakaera izugarria izan dela uste dut. Mondragon Unibertsitatea unibertsitate gaztea da oraindik. Nik sartu nintzenetik ikusi nuena izan ziren egiteko modu desberdinak; enpresarekiko lotura handia topatu nuen, eta berrikuntza-erikiko orientazioa ere bai. Gero, urte gutxian bilakaera handia izan du unibertsitateak. Askok hazi da, campusei, eskaintzari zein ikasle kopuruari dagokienez. Baina behar bada aldaketa handiena izan da erakusteko eta ikasteko moduak nola doazen aldatzen.



Lehen esan dudanarekin lotuta, pertsonok, bereizteko, zerbait gehiago eman beharko dugu, robotek ez daukatena. Beraz, goi mailako hezkuntzan ere gauzak aldatu egin beharko ditugu. Lehen, dena zen ezagutza eta ezagutza, edukiak ikastea; orain, gero eta gehiago ikusten da beste gaitasun batzuk jorratzea askoz ere beharrezkoagoa izan daitekeela. Nire ustez, hori izan da aldaketa handiena.

Esaten duzunaren adibide al da zuen LEINN gradua?

Bai. Lidergo ekintzaile eta berrikuntza gradua da LEINN, eta badira 11 bat urte horrekin hasi girela. Ekintzailetasunean oinarritzen den gradu bakarra da. Hain zuzen ere, metodologian datza bere berrikuntza nabarmenena, ikasteko modu oso desberdina eskaintzen du. "Eginez ikasi" leloarekin laburtu daiteke. 18 urterekin, ikasleek egiten duten lehengo gauza da enpresa bat sortzea, eta enpresa horretan proiektuak eginez ikasten dute. Osagai gehiago ere badituzte

graduaren barruan, adibidez, nazioartekotzea; baina oinarria da eginez eta taldean ikastea. Aldaketa handia da, orain arteko ikasketa prozesu tradizionaletik.

Ez al duzu uste ekintzailetasun hitzak, boladaz, konnotazio ezkorra ere hartu duela, lan munduan sartzeko bide ia bakar edo behartu moduan planteatzen delaren baitetan?

Gakoa da nola ulertzen den ekintzaile izatea. Ekintzaile izan daiteke enpresa berri bat sortzen duena, baina ekintzaile guztiek ez dute horrela egingo. Gure ideia ez da gradua bukatzen duten guztiek enpresak sortzea; batzuek sortuko dituzte, baina beste askok ez. Enpresek gero eta gehiago bilatzen dituzte barne-ekintzaileak, izaera ekintzailea duten langileak, inizatibadunak. Lehengora itzulita, makinek egin ezin dutena egiteko gai diren pertsonak bilatzen dituzte enpresek, eta makinek ez dutenaren arloan kokatzen dira ekintzailetasuna, sormena edota pertsonekin harremanak sartzeko gaitasuna.

Produktu on bat izatea baino garrantzitsuagoa izan al daiteke produktu hori saltzen jakitea? Zer garrantzia dauka marketinak gaur egun?

Beharrei erantzuteko balioko duen eredu sortzea eta lantzea da gure erronka, eta ez hainbeste eredu hori nola salduko dugun. Produktua benetan ona bada, bera bakarrik saltzen dela ere esaten dute askok. Gizarteak benetan behar duena eskaintzen badugu, ziur nago bere kasa salduko dela, jendeak eskatuko duela.

“Lehen, dena zen ezaqutza eta ezaqutza, edukiak ikastea”

“Enpresek barne ekintzaileak bilatzen dituzte, gero eta gehiago”

Baina antzeko bi produkturen kasuan, bata publikitate gutxi edo eskasa badu, eta besteak gehiago eta hobea, egongo da aldea, ezta?

Komunikazioa garrantzitsua da, noski. Baina publikitate asko edo gutxi baino, publikitatea egokia den ala ez izango litzateke aldea. Gaur egun, ezin zara mugatu zure eskaintza Euskal Herrira edota Espainiara bakarrik bideratzera. Edozer produktu egiten duzula, era berean pentsatu behar duzu hori nola egokituko duzun merkatu bakoitzera, produktu bera ezin duzulako modu berean saldu leku ezberdinetan. Gure kasuan, adibidez, hemen eskaintzen dugun LEINN ez da izango, behar bada, Shanghain eskaintzen dugun bera; pertsonak eta kulturak aldatu egiten dira batetik bestera eta egokitzen jakin beharra dago. Marketina inportantea da horretan.

Zer da garrantzitsuagoa, egiten duzuna nola egiten duzun edo egiten duzun hori nola erakusten duzun?

Biak dira inportanteak. Marketinarian bi kontzeptu daude: identitatea eta irudia. Pertsonekin gertatzen den moduan, identitatea da zein zaren eta nolako zaren.

Zure autoak leialtasunarekin

AIZPURU AUTOAK
PREMIUM QUALITY

Tel: 943 81 23 89 aizpuru@aizpuru.net
Fax: 943 81 22 88 www.aizpuru.net

Arretza 17, 30730 AZPIRTIA

Beste kontu bat da irudia, jendeak nola ikusten zaituen, nola sumatzen zaituen. Unibertsitatean, adibidez, bezeroak zure etxera datoz, izan ikasleak edo izan gurasoak; beraz, oso zaila da izaerarekin bat ez datorren irudi bat mantentzea, oinarririk ez duen irudi bat ematea. Horregatik da garrantzitsua oinarri hori ondo definitzea eta oinarri horretan edukitzea eta eskaintzea jendeak baloratuko dituen gauzak.

Zer eragin izan dute Internetek eta sare sozialek marketingaren munduan?

Asko eragin dute: komunikazioan, banaketan, erosketetan... Hasieran, agian, pentsatzen genuen sare sozialak komunikatzeko bakarrik zirela, harremanak edukitzeko. Baina gaur egun Interneten garatu den merkataritza elektronikoa ere hor daukagu. Orain dela urte batzuk, inork ez zuen ezer erosten Internet bidez, eta gaur egun, uste dut ez dela ia inor egongo Internet bidez zerbitu erosi ez duenik. Asko aldatu dira gauzak, eta gainera, aldaketak oso azkar ari dira gertatzen. Duela urte batzuk martxan zeuden sare sozial batzuk desagertu egin dira; gaur egun dauzkagun beste batzuk ere, nork daki, hemendik hamar urtera hor jarraituko al duten ala desagertu egingo diren. Mugimendu eta aldaketa handiak daude. Telebistako ira-

garkietan-eta lehen ikusten genituen aurpegi ezagunen tokia hartzen joan dira youtuberrak eta; badirudi horiek ere ari direla goia jotzen, baina ikusi egin behar. Uste dut, orokorrean, saltzeko moduak ez ezik, komunikatzeko moduak aldatu direla. WhatsApp, Facebook, telefonoen erabilerak... Harremanak pila bat aldatu dira. Nik ezagutu nuen gurasoen etxea telefonorik gabe, eta hala ere gelditzen ginen kalean elkartzeko, ez dakit nola egiten genuen! Baina ezin da atzera itzuli, eta komunikaziorako molde berriek gauza onak ere badituzte. Bidaia asko egiten ditut, eta etxetik kanpora nabilenean edozein momentutan jar daitezke kontaktuan alabak eta senarra nirekin, eta neu beraiekin, WhatsApp edota bideo-deiak erabilia; eta hori pentsaezina zen orain dela gutxira arte. Eta hori negoziatarra estrapolatu daiteke, noski.

Sarean ez dagoena, ez da?

Sarean ez bazaude, ez zaude. Baina, era berean, horrekin ere ari zara irudi bat ematen. Bakotzak baloratuko du zer-nolakoa den irudi hori; teknologia zalea ez zarela pentsa dezaket nik, adibidez. Egia da, ordea, gaur egun edozertarako, Internet izaten dugula lehen informazio iturria. Orduan, negozioak egin nahi badituzu eta Interneten ez bazaude, nahikoa zaila da. Pertsona mo-



Amaia Aizpuru Istanbulen (Turkia).

duan ere, *personal branding* deritzonaren bidetik, zeure burua nolabait saltzea nahi baduzu, enpresa batek kontratatzea nahi baduzu, enpresek ere egiten duten lehen gauza izaten da Interneten begiratzea, zure profila zein den ikusteko. Interneten ez bazaude, irudi bat ematen duzu eta horretaz jabetuta egon behar zara. Bestetik, Interneten bazaude,

zure presentzia nolakoa den arabera ere beste irudi bat emango duzu. Interneten eta sare sozialetan zer irudi duzun ere kontrolatu egin behar duzu, azkenean. Zeure burua saltzeko beste modu bat da, eta badago hori oso ondo egiten duen jendea. Gaur egun, edozein lan egin nahi baduzu, pentsaezina da Interneten ez egotea.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

Aberriafu poligonos, 2
Tel. 943 355 016
Zarautz

Santiago aztoa, 12
Tel. 943 343 443
Zumaiola

San Juan, 16 edif. AXBU
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Cespede Kalea, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

To be or not to be

Inork galdetu gabe, lehenik txakur bat, eta gero beste bat; eta azkena, hamar urtez zaindu behar izan nuen. Denera, hogeitaka urte. Denborarekin eta distantziarekin ikusita, beharbada, behar baino lehenago eman zidaten izaki bizidun zoragarri haien zaintza eta horrek dakarren erantzukizuna. Baina izaki bizidun haiei esker ditut orain ditudan oroitzapenak eta iritzia.

Aditua ez naizen arren, txakurrei esker, eta batzuetan horien erruz izandako bizipenak tarteko, hartu dut eskarmentua. Horregatik, txakurrak izango dira gehien ezagutzen ditudan animaliak. Jarraian esan nahi dudana ulertzeko, txakurrekin enpatizatzea eskatzen dizuet.

Imajinatu goizeko seirak direla, eta badaramatzazula bi edo hiru ordu maskuriako eta es-teetako bultzakadekin; eta nagusia, berriz, lo. Edo, imajinatu seirak direla, lo zorroan zaudela, nagusiak goizeko seiretan sartu behar duela lanera, eta batera beharrik gabe, pixa eta kaka egitera behartzen zaituela. Noiz, eta goizeko bostetan, artean pixa eta kaka kanporako irteeratik urrun daudenean. Baina berdin dio, bai ala bai barruko betegarria kanpoan utzita etxeratu behar duzu.

Imajinatu, azalpenik eman gabe, orduak eta orduak uzten zaituztela etxean bakarrik, edo are okerrago, porlanezko lurra duen lantegiko biltegian zaudela. Orduak eta orduak... izurrai!

Imajintu honako galdera hau egiteko gai izango balira: "Zer dela-eta nago ni hemen? Zein da nire tokia etxe honetan –munduan ez esaterren–?". Beharbada, ez dira beren buruari galdetzeko gai izango, baina bai bakarrik egoteagatik estresatzeko edo goibeltzeko.

Imajinatu, halako batean, nagusia etxera itzuli dela, eta hura agurtzerakoan, pozarren, pixa ateratzen zaizula eta errieta egiten dizula. Jaten eman, korrika eta presaka etxetik atera, eta betiko buelta; betiko usainak usaindu ostean, berriro etxeratu egiten zaituzte. Zertarako? Berriz ere zain egoteko. Zer dela eta? Auskalo.



||||||| olatz aguado |||||

||| Badira familiako kide diren eta pixa zein kaka berdin-berdin egin beharra duten zakurrak

Eta paseora ateratakoan, zer? Lotuta egon behar, gainera! Joe, korrika egin nahi eta ezin; beste zakurren bat agurtu nahi, eta bi nagusiak ondo moldatzen ez direlako, tira sokatik, eta aurrera joan behar... Izurrai, berriro! Gogorra da gero herriko txakur askoren eguneroko martxa. Ez iruditzen?

Aholku pare bat

Hala ere, badira familiako kide diren eta pixa zein kaka berdin-berdin egin beharra duten zakurrak. Manikura eta pedikura egin eta koloretako pentsu makrobiotikoa jan arren, galdera bera egin dezakete horiek ere: zer kristo pintatzen dut nik hemen? Edo ingelesa bada: *to be or not to be, that is the question.*

Badira zoriotsu diren txakurrak: ondo heziak, maitatuak eta zereginak dituztenak. Hala ere, etxebizitza batean gizakiekin elkarbizita, beren baldintzak eta beharrak ez direla aintzat hartzen uste dut. Bukatzeko, nahiz eta nire asmoa ez izan leziorik ematea, nire esperientziatik, aholku pare bat ematera ausartuko naiz.

Bat: txakur bat etxera ekarri aurretik, hausnartu zertarako ekarriko duzun, zenbat denbora duzun hari eskaintzeko, zenbateko kostua duten albaitariari egin beharreko bisitek, xertoek, aseguruak, ebakuntzek, oporrak nola baldintzatzen dituen, zer biziraupen duen... Baina batez ere, zein izango den zakur horren zeregina. Eta bi: gure herrian, aurreko baldintzen erdiak betetzen ez dituzten txakurrak izango ditugun arren, korrika libre egiteko eta beste zakurrekin jolasteko edo horiek usaintzeko espazio bat izan dezaten eskatzen dut. Zer gutxiago!*



Bakarmortua

Aspaldion fatalista samar nabilela diote ingurukoek, gertakarien ertz beltza bakarrik ikusiko banu bezala. Gazteriaz, jendearen bizimoduaz, egunen joanaz... Pisua nabari diete nonbait kontatzen dizkiedanei; eta etsipena. Eguraldi goibelak eta argiprintzari ezak eszenatoki borobila uzten diote, noski, barreneko beltzari konspira dezan. Bolada izango dut era horretakoa, baina ez nuke esango pertzepzio oker-okerra dudarik ere. Lilura noiz etorriko ez ote gabiltzan, zeruko txalo baten zain ez ote gauden.

Mobilizazioak eta aurkako erreakzio agerikoak eragin ditu gure herrian ireki berri duten apustu etxeak. Aitortza miresgarri eta eredu-garririk ere izan da. Bejondeizuela horretan zabiltzatenoi, duintasuna miseriaren aurrean, horixe izan zarete. Irakurri dugu apustu etxeek gorakada nabarmena izan dutela azken urteetan. Noiz eta krisi ekonomiko kapitalistak bortitzen jo gaituen unean, non eta krisi ekonomiko kapitalistak bortitzen jo gaituen sektore eta espazioetan. Hirietako periferietan kokatzen dituzten apustu etxeak omen, errentegarriak, eta mutil gazteak profilik ohikoena. Izurritea denera hedatua da, dena den. Ausazko fenomeno gutxi gure lur honetan; historia bera jende beraren gainera itzultzen da, behin eta berri. Analogia posible bat: duela ez hainbeste Santurtziko portuaren irudia datorkit bat-batean gogora, edo Ondarrukoarena bestela. Elgoibar datorkit, Itziar; gazte zaugarri bat xiringa herdoilduz zainak zaldizatzen. Jende beraren gainean errepikatzen da historia.

Jende xehearen –zehaztu, Gurrú, deitu langile klasea– desesperantza da industria honen lehengaia, etekin iturria. Izerditik eta malkotik gasoila ateratzea da nolabait esateko, berme –inpunitate– legal osoz, gainera. Instituzioek ezin diote lokala erosterik inori galarazi, eta gutxiago, lokal horretan era horretako negozioa zabaltzea. Hortxe ba legalitatea: mobiliazio askorentzako horma pitzaezina. Kontzientziazioaren eta boikot aktiboaren in-



|||||||jon gurrutxaga|||||||

|||Ondo dago alegiazko ametsak izatea, baina horien atzetik arrastaka ibiltzeak ez du merezi

darra ez ahal ditu eguneroko honen gurpil ahaltsuak azpian hartuko...

“Milagroak Lurdesen”

Aipatutako desesperantzan txin-txin hotsa somatu duten bakarrak ez dira apustu etxeak izan. Autolaguntza liburuak zientoka topa daitezke, ordu erdiko kontsulta ehun euro kobratzen dizuten profeta salbatzaileak jaino dira zorionez –lehengo apaizen erretorika harrigarri antzerakoarekin, kuriositatez– eta Gabonetan loteria erosten dugu badaezpada. Miseriaren aurkako errezeta magiko horiek arazoaren berehalako konponbide indibidualak eskaintzea dute amankomunean. Adiskide batek, gordin, ameskeria oro airatzeko moduan kontatzen zidan Gabon inguruan: “Jendeari loteria tokatzeko baino auto istripuz edo minbiziak jota hiltzeko askoz ere probabilitate gehiago daukala esan behar zaiok”. Zurtuta geratu nintzen. Inork pentsa lezake horrelako lagunak izanda, nola ez naizen izango tipo atsekabetua.

Ondo dago alegiazko ametsak izatea, baina horien atzetik arrastaka ibiltzeak ez du merezi. Bizitza eta poltsikoa kondentatzeak, are gutxiago. “Millegruk Lurdesen”, erabiltzen da gure etxean –Urrategiko amona zenaren ukitutuz–, etxe askotan bezala. Hankak lurrera ekartzeko dei gisara ulertzen dut nik. Arazoen aurrean, ingurukoaren babesa bilatu eta elkartasunez erantzutean datza konponbidea, nonbait izatekotan. Poetari terminoa ostuta, *bakarmortua* da aurrean daukaguna eta utopia, zerbait bada, kolektiboa da.✱



Etxea goitik behera janzten

Urrategi barne diseinu dendan goitik behera eta detaile guztiak kontuan hartuta janzten dituzte etxeak.

Orain dela **22 urte hasi zuen bidea**; aurrena Azkoitia, eta gero Azpeitian. Izan ere, 2007an etorri ziren Azpeitira, Arretxe kalera.

Gaur egun, bi solairuko saltokia dute, iaz gunea handiagotzeko lanak egin baitzituzten. Bertan, **personalizatutako sukaldeak, neurrira eginiko armairuak, bainugelak, logelak, haurrentzako gelak, sofak eta abar** saltzen dituzte, gustu eta herritar guztientzako pentsatutakoak.

Etxebizitzen erreformak ere egiten dituzte, urte askotan lan egiten ari diren gremioekin, eta horrek erreformak ondo antolatzea eta epeak errespetatzea ahalbidetzen du.

Duela gutxi, gainera, produktuak ikusgai jarri dituzte **www.urrategiinteriorismo.com** webgunean.



|||HIZKUNTZ ESKUBIDEAK|||

Korrika igaroko da herritik

‘Klika’ lelopean egingo dute Korrikaren 21. edizioa. Apirilaren 12an, ostirala, pasatuko da Azpeititik. Aurreikuspenen arabera, 09:34 aldera iritsiko da euskararen aldeko lasterketa herrira.  Julene Frantzesena

Garesen (Nafarroa) hasi eta Gasteizen bukatuko da Korrikaren 21. edizioa. Hain zuzen ere, *Klika* lelopean egingo duten Korrika apirilaren 4an hasi eta hil horren 14an bukatuko da. Egun horietan guztietan Euskal Herriko ehunka herri zeharkatuko ditu euskararen aldeko egitasmoak, eta Azpeititik ere igaroko da.


Aurtengo edizioan ere herrigunetik pasatuko da Korrika, eta herritarrek euskararen alde lasterka egiteko aukera izango dute. Apirilaren 12an, ostiralez, iritsiko da Azpeitira. Ibilbideko 1950. kilometroan sartuko da herriko lurretan, eta 1962. kilometroa izango da herrian egingo duten azkena. Korrika herrira 09:34 aldera iritsiko dela aurreikusten dute antolatzaileek; orain dela bi urte baino ordu egokiagoan, orduko hartan 05:00ak inguruan pasatu baitzen

herritik. Azkoititik iritsiko da Korrika Azpeitira, eta ondoren, Zestoarako bidea hartuko du.

Dagoeneko hasi dira han eta hemen Korrika Bartzordeak sortzen, eta Azpeitian ere eratu dute jada. Egitasmoa egiten den aldirako legez, alde horretako kideak arduratuko dira Korrikaren aurreko prestaketa lanez, Korrika Kulturalaz eta kilometroen salmentaz.

AEK-k duela hilabete batzuk aurkeztu zituen Korrikaren 21. edizioko abestia eta bideoklipa. Aurtengo bideokliparen zuzendari artistikoa Fermin Muguruza izan da, eta Mad Muasel eta La Furia artistak izan ditu laguntzaile. Musika, berriz, Kataluniako Charlart58 eta Fermin Muguruzak sortu dute, elkarlanean. Trap, dancehall eta hip-hop doinuak eta euskal tradiziokoak nahastu dituzte kantuan.*



Korrikaren 20. edizioko irudia.  Uztarrria



Jose Luis Otamendi.

|||ESANA DAGO|||

|||“Kultura aski kritikoa eta aski autonomoa ez bada, folklore bihur daiteke edo agintearentzat apaingarri edo jostailu otzan”

JOSE LUIS OTAMENDI
Kulturaz kooperatibako lehendakaria

|||“Googleko iruditegian agertuko ez diren argazkiak egin nahi ditut”

|||“Kamera hartu eta begira egotea gustatzen zait. Egun osoa pasatuko nuke argazki batzuk ateratzeko”

NORA ALBERDI
argazkilaria

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK*

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

IKA Instalakuntza Elektrikoak

argi lanak s.l.

Urrut.: 618 96 49 95 / Jon: 645 12 02 71
ikazargi@naki@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

Hibernatzen

Ez dakit noiz eta nola izan zen. Dakidana da, beti nirea izan dela, beti neure erraietan neure sentitu izan dudala. Barruraino sartzen zaizu, ez dakizu zergatik, logikarik ere ez du. Dakitenez zer dioten ez dakit, baina ez dut garbi kontu genetikoak den edo konturatu gabe ariman sartu eta zure jabe egiten den. Ez dakit dohaia ala gaitza den, mesede ala kalte egiten duen. Kontua da, zeure barruan daukazula, bihotzean, betirako. Batzuetan, hibernatzen; beste batzuetan, Martxialeneko labeko sua bezain bero. Baina betiko eta betirako, zure bihotz gorrian (edo urdinean) arrasto nabar-

mena utzita. Zentzugabekeria dirudien arren, askotan badirudi zure bizitzak ez duela zentzurik bera gabe. Elgetako nire lagun egoskorrak dioen bezala, bizitza honetan garrantzirik ez duten kontuen artean hori da garrantzisuena.

Kontua da, ordea, neure erraietaraino sartuta dudak xamorrotoak lo hartu duela, hibernatzen ari dela. Tarteka txinpartaren bat botatzen badu ere, Martxialeneko sua itzali da. Berez hotza eta arrazionala banaiz, gai honetan ere lepo gaineko baloiak lekua kendu dio bihotzari. Jokoa berak begi-bista alaitzen dit, atsegin dut, dagoen arterik ederrenetakoa da...



txetxu urbieta

baina orain ez nau hunkitzen, tximeletak desagertu dira. Pasioa, sentimenduak nahiz ametsak negozio huts bilakatu dira, bilakarazi dituzte. Berezia, aparta eta bakarra zena, orain beste guztien antzeko bihurtu da. Label bereizgarria izatetik frankizia huts izatera igaro da. Eta ez nau erakartzen, zirrara berezia sortu beharrean petraldu eta haserretu egiten nau. Beraz akabo, bukatu da. Kitto. Hori bai, hartu duzun bidea gustoko ez badut ere, ez zaitut inoiz beste batengatik aldatuko. Beti nirea izango zara, beti maiteko zaitut. Beti izango zara niaren puska handi bat.*

IKUSTEKO!



▲ LAKU BAT AZPEITIAN.

Etxe Alai eta Arana Goikoa auzuneen artean, zingira zirudien putzu bat eratu zen sansebastianen ostean. Euriak ez zuen atsedenek eman hainbat egunetan, eta ura pilatu zen Samiel azpian. Euria egitean, askotan sortzen da gune horretan putzua, baina hain handirik ez duela sekula ikusi azaldu du argazkiaren egileak. 📷 **Uztarria** 📍 **Leire Larrañaga***

URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



Nabarmentzeko lana

GIZARTEA. Urtea zoritxar batekin hasi genuen. Horrelako ezbeheharrak urruti gertatzen direla pentsatzen dugu, baina gertu tokatu zitzaigun. Ia Hernio gaindituta zutela gertatu zen ezbeharra, eta hainbat erreskate talde izan zen bilaketa lanetan. Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitatea berehala iritsi zen istripuaren lekura; hain zuzen, abisua jaso eta hamabost minutura iritsi zen lurretatik (Bizkaia) helikopteroz, erreskatea azkar hasteko.



.....ieltxu caballero.....



Oso ideia ona

KIROLA. Oso ekimen ona iruditzen zait Aldundiarena, herritar ugari erabiltzen baitugu Azpeitia eta Azkoitia elkartzen dituen bidegorria. Bizikletak ondo mantentzeko gunea herrian izatea ideia oso ona da, batez ere batzuetan bidegorriak izaten duen egoeratik –zenbait puntutan sasiak bidegorriaraino iristen dira–. Batzuetan ikusi izan ditut txirridulariak edo gaztetxoak gupila zulatuta Azpeitirantz oinez itzultzen...



Apustu etxeen afera

GIZARTEA. Ikaragarria da apustu etxeak hartzen ari diren indarra. Duela urte batzuk agertu ziren herriko hainbat tabernatan apustu makinak. Adin txikikoak ginen gazte asko joaten ginen horietan ibiltzera, eta tabenariak ez ziguten ezer ere esaten. Batzuek gehiago eta besteek gu-

txiago, baina denok makinei dirua botatzen. Gabonetako oporraldian erabat harrিতa geratu nintzen: ilobarekin umeentzako film bat ikusten ari nintzen telebistan, eta Sobera jauna azaldu zen apustu etxe horietako baten iragarkian. Jada umeen ordutegiak ere ez dituzte errespetatzen.*

INKESTA

soziedadera joateko ohiturarik bai?

I. Elustondo/A. Olaizola

JABIER MAIZ

59 urte



“Normalean ez naiz joaten, ez bainaiz inongo bazkide. Lagunen

baten soziedadera-edo joaten naiz, urtean behin edo bitan. Txabola bat dugu senideok, eta hara joan ohi naiz”.

JOXE ARZALLUS

66 urte



“Gutxi joaten naiz. Ez zait oso probetxuzkoa iruditzen nire

kasuan; izan ere, beste ohitura batzuk ditut. Adibidez, tabernetara-eta bazkaltzera joatea gustatzen zait.

SORKUNDE ARRIOLA

52 urte




“Badut elkarte batean bazkide den lagun bat, eta ia larunbatero

joaten naiz soziedadera harekin. Gustatzen zait elkartean egoten den saltsa. Aurretik poteoa egiten dugu, eta gero lagunarte ederrean afaldu”.

ANA APARICIO

44 urte



“Gustatzen zait soziedadera joatea, baina gutxitan joaten

naiz, ez banaiz inongo bazkide. Tarteka, joan ohi naiz elkarteren batera afaltzera, lagunekin edo lankideekin. Giro ederra sortu ohi da”.*

Xaharraren eguerdiko karkaxa



Imanol Amiano

Dena urtebete lehenago hasi zen. Sansilbestrea ikusten ginela, lasterkarien eta animatzen geundenen oihera eta txalo artean, “hi, ertengo al diau biyok?”, bota zidan, zerbeza eskuan, lagun batek. Hirugarrenak biribildu zuen erronka: “Neuk ipini bazkaye ertetzen bazezue”. Eta nik baietz, hurrengo egunean hasiko nintzela ibilbidea aztertzen. Kotxez. Izan ere, sei kilometro pasa ez dira, ez, ahuntzaren gauerdiko eztula. Nire kasuan, *xaharraren eguerdiko karkaxa* gehiago. Horrela, urteari asmo berriz ekiteko konpromiso irmoa hartu nuen: korrika, gimnasioa, spinnin... denerako prest. Errege egunerako, kalentura pasatua, errutinak aldatze kontu hori aurreragoko uztea hobe nuela pentsatu nuen: “Udako, beharbada”. Ohi bezala.

Eta iraila ere iritsi zen. Urte amaieran txantxa artean esandakoak etorri zitzaizkidan gogora. Eta harrigarria bada ere, Sanjugo iturrirainoko korrikaldia egin nuen –eta itzuli ere bai!–. Goizean goiz, erdi ezkutuan. Tira, ez hain ezkutuan, baten batek esan baitzi-

dan pena ere ematen nuela. Zer egingo diogu ba, 50 urte bete behar eta, pleistozenoan saskibaloian jardundakoa izanagatik, gainerako bizitza erdia baino gehiago neraman kirolik egin gabe... Ni, ordea, gustura. Burua –eta kilo batzuk– *despejatzeko* ederki zertorkidan.

Eta Urtezahar eguerdia ere iritsi zen. Jende pila bat errepedean, are gehiago bide bazterretan. Giro bikaina eta animo ugari. Nirekin, erbi etiopiarrek bailiran, Guenbeselassie eta Martinekele. Haize-bolada bat sumatu al zenuten hamabiak eta hogei aldera? Ba ez ginen gu, ez. Aurrena zen. Kabroiak ia doblatu gintuen plazan, lehen itzulia amaitzen ari ginela. Helmugan, 38 minutu eta 24 segundo. 783 korrikalari aurretik eta... 49 besterik ez atzetik. Baina denbora eta postua ziren gutxienekoa. Harro nengoen, arnasa –gehiegi– estutu gabe osatu bainuen ibilbidea. Txanpaina, topa egiteko, eta txuri pare bat raba batzuekin *balentria* ospatzeko. Aurtentzen baietz marka hautsi! Edo ez. Ze inporta dio!*

galdetzen hasita, datorren urteko helduen danborradan izango al da talde berririk? Uztarrria

Azkarregi

Dena azeleratzen ari da, eta benetan diot: beldur naiz.

Ehiztarien eta fruitu-biltzaileen bizierak hirurehun mila urte iraun zuen, ezer askorik aldatu gabe, Homo Sapiens gure giza espeziea sortu zenetik lurra lantzen, haziak ereiten eta abereak hezten hasi ziren arte. Nekazariak eta abeltzaintzak, ostera, hamabi mila urte iraun zuen, industria sortu zen arte. Industria-aroak, berriz, 250 urte bakarrik daramatza eta lau iraultza gertatu dira jada (bapozeko makina, argindarra, energia atomikoa, Internet eta informatika). Industria 4.0: industria digitalizatua, adimen artifiziala, robotika... Eta ziztu bizian goaz bosgarrenera, edo guttiz bestelako aro batera, ez dakigu nora.

Nora gabe eta azkarregi. Aurreko hamar mila urteetan baino gehiago aldatu zaigu bizimodua azken 60 urte hauetan, eta ez da ahoberokeria. Autoak eta garbigailuak ahalik eta gehien irauteko egiten ziren



Joxe Arregi

hasieran; orain, urte gutxira iraungitzeko diseinatu dituzte. Ordenagailuak eta mugikorak, urtebetetarako, traste zahar bilakatzen zaizkigu, inoren aurrean lotsagarri. Gaurko gradu unibertsitarioak eta profesioak ez dizu bihar balioko. Berritu ala hil.

Ala berritu ahala hil? Zorionetik hurbiltzen ari ote gara ala urruntzen? Gero eta azkarrago goaz, baina hobeto bizi ote gara? Nora goaz hain azkar, eta norerekin?

Lehia jarri zaigu lege, lehia bera helburu. Ondokoa baino azkarrago joatea da kontua. Jaten ez badut, jan egingo nau. Irratiak entzulea du helburu, telebistak ikuslea, egunkariak irakurlea, ikastetxeek ikaslea, banketxeek bezeroak, enpresek salmenta. Irabazia beti. Eta mezua, ikuskizuna, informazioa, hezkuntza, etika, justizia, berdintasuna? Bistan da: lehia galtzaile beti.

Azkarrago eta estuago. Azkarrago eta etsaiago, herio-lehia. Lehia eroan. Merezi al du?*

SOKAMU TOUR

THE AUTHENTIC AZPETTAR EXPERIENCE



Tour guide available in other languages



- 1 16:30 THE BEGINING**
Explosion of joy with the second rocket. Be careful! & run like hell around Middle Street.
- 2 16:30-16:55 MAIN SQUARE**
Roped bull runs up & down while citizens watch it from the kiosk & every corner.
- 3 16:55-17:20 UPPER STREET**
In front of historic Artexe Hostel which is closed for years. No beds available.
- 4 17:20-17:50 THE RAVAL**
Urtzi-Pikua stretch, two of the long-lived bars name. The bull is changed here.
- 5 17:55-18:25 STONEBRIDGE**
Typical conversations with the 'kuadriller' about spree. The bull is changed again.
- 6 18:25-18:30 THE RETURN TO MAIN SQUARE**
The ropeboys take a break before leaving to the next place.
- 7 18:30-18:55 SAINT JAMES**
The laundry & a playground. Many children watching it. A new bull comes out there.
- 8 18:55-19:15 THE CHURCH**
San Sebastian is the patron of Azpetia town, respect.
- 9 19:15-19:30 CHURCH STREET**
Citizens screaming from all the portals and balconies. Bull changed again.
- 10 19:30-19:45 ENPARAN I**
Applause & ovations in the small square. Be careful with old citizens. Bull changed.
- 11 19:45-20:00 ENPARAN II**
THE END of the roped bull experience. Congratulations! You're an authentic azpettari!

(Approximate timetable of the itinerary)

*Popular song chorus:
Hementxen da!a! Yeah! (repeat)
lo, lo, lo!o, lo, lo!o!o, lo, lo!o...

Gurasotasunaz

Zenbat urte dituzu? 30en inguruan bazabiltza edo dagoeneko igaro badituzu, ziur nago gurasotasunak era batera edo bestera zeharkatu zaituela. Ukitu behintzat egin zaituela esatera ausartuko nintzateke; lagun bat ondorengoak izatera animatu delako, familiarrekoren batek leinuaren jarraipena bermatu duelako, edo zergatik ez, zu zeu guraso zarelako jada. Eta konturatu zarenerako, gurasotasuna egunerokotasunean txertatuta daukazu. Hizketaldietan, eguneroko inertzietan... izan ala ez izan: horra hor auzia!

Bart lagun batek deitu zidan aita izango dela

kontatzeko. Haurdu daude. Zorion agurren tartearen ondoren, amaren osasunaz, jaiotze dataren hipotesiez eta halako kontuez galdetu nion. Ezer gutxi betikoaz haratago.

Ez nion galdetu bera nola zegoen, zer itxaropen zituen, zein ziren beldurrak edo nolakoa izan zen erabakitze prozesua. Datu soiletara mugatu nintzen, barrurago arakatu gabe. Agian, ez zen momentua; hurrengo elkarriketetan izango dugu horretarako tartea. Baina susmatzen hasia nago, urriak direla gurasotasunaz –are urriago aitatasunaren– hitz egiteko sortzen ditugun espazioak. Haurraren ebo-

luzioaz, erditzeaz, jatorduez eta kakez, hortzen edo esaten dituzten hitzen kopuruez dihardugu, baina ezer gutxi entzun ohi dut horrek guztiak sentiarazten digunaz; asmoez, nahiez, frustrazioez edo garaipenez.

Kausalitateetan sinesten dut kausalitateetan baino gehiago, eta duela gutxi sarean aurkitu nuen Edu Zelaietaren *Amatasun antzua* poemak horrela dio: “Amaren altzoan/eztiro kulunkatuz/dastatzen ditugu gizonok sormenaren/jelosiak”.

Zurekin partekatu nahi nuen irakurle, gurasotasunaren intimitateari hitzok.*



felipe murillo

Erotikan Plax!

Zutarri guraso elkarteko koordinatzailea da Iñaki Aizpuru, eta hiru seme-alabaren aita ere bai. Hari egokitu zaio hil honetan galderei erantzutea.

Nolako sexu heziketa jaso zenuen zure gurasoengandik?

Garai hartakoa; zaila zen gurasoenkin sexuaz hitz egitea, ez geunden ohituta ez beraiek eta ez gu.

Zer transmititzen saiatzen zara zure haurrei?

Naturaltasuna eta ikuspegi anitzagoa.

Nola zaintzen da intimitatea hiru umeren aita izanda?

Puf... Oso zaila bihurtzen da une askotan.

Zuen etxean, atea irekita ala itxita?

Bietara, egoeraren arabera.

Zein da zure seme-alabek egin dizuten galderarik deserosoena?

Adibidez, zergatik gertatzen diren bikoteen arteko banaketak eta tratu txarrak.

Irudikatu familian telebistari begira gaudela, eta eszena erotiko bat ikusten dugula.

IÑAKI AIZPURU



Jaio. 51 urte.
Herria. Urrestilla.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Guraso
Elkarteko koordinatzailea.

haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)

Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, hilabetea: hilaren 13an
(16:00-19:00) eta 23an (10:00-13:00).

Zer gertatuko litzateke Azpeitiko familia gehienetan?

Gai horri dagokionez, azken urteetan asko eboluzionatu dugun arren, uste dut oraindik ere hainbat etxetan *zappinga* egingo luke-tela.

Haur parkean asko ligatzen al da?

Baietz esango nuke. Gaur egun, supermerkatuan baino gehiago, kar, kar, kar.

Tartea duzunean, zer egiten duzu plazer hutsez?

Pijamarik gabeko siesta gozogo bat.

Zure seme edo alaba parrandan hasten denean, pentsatu al duzu zer esan?

Oraindik ez dut pentsatu, baina orain bat-batean esateko: “Ondo pasatu, pasatu gabe”.

Tratu onetan oinarritutako harremanak eraikitze,

zertan jarriko zenuke arreta?

Komunikazioan, errespetuan eta empatian.

Norekin eta nora bidaiatuko zenuke gustura?

Emaztearekin eta hiru seme-alabekin Afrikara.

Zure egunerokoan duzun erronkaren bat esango?

Bizitza patxada gehiagoz hartzea eta gauza txikietaz ere gozatzea.*

**◀ AFIZI**

Betidanik iz
eskaldan afiz
(Azpeitia, 19
sortu zuen,
proiektua. F
eskariari era
eskaladarak
geroztik, ho
eraman zue
“probatzen”
“Tailerrea
emateko be
altzarigintza

Egurra helduleku

Jose Luis Urkizuk eskaladarako listoiak egiten ditu. Tailerrea sobratutako egurrari irtenbidea eman nahian hasi zuen bidea duela hiruzpalau urte. 🛠️📷 Elena Margüello

OTIK OFIZIORA.

an ditu egur lanak ofizio eta
zio Jose Luis Urkizu 'Beltza'-k
(1977). Orain dela hiruzpalau urte
ordea, Natural Progression
Pertsona batek egindako
antzunez hasi zen
ko listoiak egiten, eta orduz
irretan dihardu. Makina bat
n tailerrera aurrena, eta
hasi zela gogoratu du.
nuen egurrari irtenbidea
eharra ikusten nuen,
a oso geldirik zegoelako”.

**▲ ERREMINTA UGARI.**

Zerra, arrabota eta 'cuatro caras' makinak erabiltzen ditu Urkizuk listoiak egiteko. Hiru makina horiek erabili ostean, pieza oro bere eskuetatik pasatzen da banaka-banaka lisatzeko. Bezeroak produktuarekin “gustura” gelditzea nahi du azpeitiarrak, eta horrek “denbora eta eskulana” eskatzen dituela adierazi du.

**◀ KONTUAN HARTZEKOAK.**

Listoiak egiterakoan, bezeroak zenbat eskalatzen duen eta eskalatzeko gunea nolakoa den hartzen ditu kontuan Urkizuk. Horrez gain, listoi horiek zenbat lagunek erabiliko dituzten galdetzen du, baita erabiltzaileek indarra edo erresistentzia lantzeko ariketak egingo dituzten ere. Datu horiek jakinda hasten da diseinuak egiten. Argazkian, eginda dituen listoi batzuk.



◀ EGURRAREN LANKETA.

Listoiak tamaina txikikoak badira ere, horiek egiteko prozesua ez da batere laburra. Izan ere, enborrak basotik eraman eta prozesu guztia bukatu bitartean, zortzi-hamar aldiz igarotzen dira piezak Urkizuren eskuetatik. Enbor bakoitzarekin taula bat egiten du aurrena, eta horiek lehortzen jartzen ditu gero. Ondoren, egurrei forma ematen hasten da Urkizu: “Makineta sartzen ditut, eta bizpahiru buelta emanda, beharrezko neurrietan moztu eta zuloak egiten dizkiet”.

▼ ENTRENAMENDUAREN ARABERAKO LISTOIAK.

Listoi bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Horregatik, proiektu berri bat eskuen artean duen bakoitzean, bezeroaren nahiak eta kanpusaren angeluak izaten ditu kontuan Urkizuk. Kanpua “ariketa zehatz batzuk” egiteko erabiltzen dela eta eskaltzen hasi berria den pertsona horri listoi bidez lagundu behar zaiola adierazi du azpeitiarrak. Aldiz, eskalatzen denbora daraman pertsonak aurrera egin dezan, “gogor” egin behar zaiola esan du. Hortik dator Natural Progression izena: “Naturalki aurrera egiteko nahia adierazteak zerikusia du izenarekin”. Argazkian, Urkizuk Donostiako Pio Baroja kiroldegirako egin zuen kanpua.



► **LAGUNAK EPAIMAHAIKIDE.**

Listoiak bukatzean, ez du horiekin probarik egiten, baina zerbait berria egiten duen aldietan, piezak Sokaitzen eskalada lokalera eramaten ditu lagunek proba ditzaten. Urkizuk urteak daramatza eskaladaren munduan murgilduta, eta hark azaldu duenez, dagoeneko badaki “zerk balio duen eta zerk ez”. Argazkian, Urkizuk eskalada lokal batean muntatu behar duen kanpuserako piezak.



◀ **HAINBAT TOKITAN.**

Urkizuk egindako lanak Euskal Herriko nahiz Espainiako hainbat lokaletan, kiroldegitan, ikastetxetan nahiz etxetan aurkitu daitezke. Bukatutako proiektuak ikusteak “poza eta asebetetzea” sentiarazten dizkio azpeitiarrari. “Jendea nik egindako produktuak probatzen eta erabiltzen ari dela ikusten dut, eta horrek poz handia ematen dit; izan ere, nik egindako lana estimatzen dutela ikustea oso pozgarria da”. Irudian, Urkizuk Azpeitiko Iraurgi Ikastetxerako egindako rokodromoa.*

Mahaiaren gainean bizkotxo eta kafea, nahi duenak har ditzan. Giro lasaia. Ez da terapiarako saio bat, tertuliarako gunea da. Death Cafe saioak horrelakoak dira, eta eskatzen du gaiak halakoak izatea; izan ere, gizartean gai tabua den heriotzaz naturaltasunez hitz egitea dute xede.

Joan zen abenduaren 19an egin zuten Death Caferen lehen saioa Azpeitian. Iñaki Arregi *Izanek* (Elgoibar, 1973) eta Manex Beristainek (Azpeitia, 1977) antolatu zuten, heriotzaz lasai hitz egiten hasteko. Biei eman dizkie “kolpeak” bizitzak, eta Beristainek uste du “beharrezkoa” dela errespetuz eta juzgurik egin gabe hitz egiteko espazioa edukitzea.

Death Cafe saioetan edonork parte har dezake. “Helburua da pertsonak saiora sartu direnean baino hobeto ateratzea, nahiz eta emozionalki mugituta egon”. Izan ere, beldurrei aurre egiteko beharrezkoa da hitz egitea, gizaki oro hilko baita lehenago edo beranduago.

Hitz egiteko beharra

“Heriotzaz hitz egiteko beharra dago, baina gutxi islatzen da premia hori”, dio Izanek: “Batzuek hitz egiten dute, baina beste askok ez”. Gizartean heriotza oso agerikoa bada ere, Beristainek uste du “gauza txar” bat bailitzan hartzen delako dela gai tabua. Gainera, uste dute heriotzaren aurrean gizartea ez dagoela prestatuta. “Nor bait galdu duen pertsonak dolua igaro behar izaten du, eta askotan, ez dugu jakiten pertsona horiei zer esan”.



Manex Beristain eta Iñaki Arregi ‘Izan’.

Heriotza parez pare

Heriotzaz hitz egiteko, Death Cafe saioak egiten hasi dira. Erantzun “oso ona” izan zuen lehen tertuliak; bigarrena bidean da. 📧📷 Ihintza Elustondo eta Julene Frantzesena



Heriotza barneratzen hasteko lehenengo pausoa gai horrek pertsona jakin horri zerbait eragiten diola aitortzea dela dio Beristainek. Eta bat egin du izanek ideia horrekin: "Gero eta gutxiago sentitzen den gizartean bizi gara; zerbait gertatzen zait, eta pilula hartzen dut. Emozioak modu askotan anestesiatu daitezke, baina hor jarraitzen dute. Lehen urratsa da heriotzari beldurra diogula esatea, itxurakeriak alde batera utzita".

Buruak "dena kontrolatu" nahi izaten badu ere, heriotza misterio bat dela dio Beristainek. "Sentitzeaz ahazten gara, beldurra diogulako. Tristura ez dugu sentitu nahi, horrek eskatzen duelako bi egunez zure tristurarekin etxean egotea. Gure burua entretenitzeko joera daukagu, ez baikara gure buruarekin zintzoak". Haren ustez, umeekin modu berean jokatzen

da: "Galderak egiten dituzte jakinmina dutelako, eta guk askotan ez ditugu galderak errespetatzen, erantzun iheskorrek ematen dizkiegu. Halakoetan transmititzen diegu heriotza gauza txarra dela, sentitzen duen hori ez dagoela ondo...". Dena den, Beristainek uste du umeek heriotza "naturaltasunez" hartzen dutela arrazoimenean sartu bitartean: "Pentsa, heriotzarekin jolasten dute".

Galera baten aurrean "oreka" behar-beharrezkoa dela azaldu du izanek. "Depresioak bere arriskuak ditu eta dena ondo doala pentsatzeak ere bai; izan ere, muturreko kasu horietan dolua patologikoko bilakatzeko arriskua dago". Elgoibartarrak azaldu duenez, "momentua bizi" egin behar da, norberaren eritimoa errespetatuta: "Oreka bilatu behar da, egoera zer-nolakoa den jakinda eta bizitzaren

||| HURRENGO HITZORDUA |||||

2. saioa. Death Caferen bigarren saioa antolatu dute otsailaren 20rako, asteazkena. Heriotzari buruz errespetuz hitz egiteko espazioa izango da Sindikatu Zaharreko areto handia egun horretan, 18:30etik 20:30era bitartean. Izena eman edo informazioa eskuratu nahi duenak 672 11 78 19 telefono zenbakira deitu dezake.

aldeko apustua eginda. Gertatutakoa hazteko eta ikasteko erabili behar da, indartzeko; heriotzak balio dezake bizitza zentzu gehiagorekin bizitzeko ere".

Gizonak gutxiago

Lanagatik, lagun bat hil zaiolako, heriotzarekiko interesa duelako... Arrazoi bat baino gehiagotatik parte hartzen dute herritarrek Death Cafe saioetan. Lehen saiora gizonak baino emakume gehiago bertaratu zirela dio Beristainek, eta uste du hori "gizartearen isla" dela. "Emakumeak beti elkartu izan dira emozioez hitz egiteko. Nola gauden entzuteak norbere barruarekin konektatzea eskatzen du, eta beldurra daukagu horretarako". Izanek uste du gizona gaizki egotea ez dagoela ondo ikusitasozialki: "Hala badago, ja ez da gizona. Hori oso ikuspuntu mugatua da, negar egiten dakien gizonak emozioak kudeatzen dakielako".

Adinari dagokionez, berriz, gehienak 55 urtetik gorako herritarrak zirela gogoratu du izanek. "Jendeak, adinean aurrera joan ahala, gero eta hurbilago ikusten du heriotza, eta barruan zenbait gauza sortzen zaizkio". Bestalde, lanagatik heriotza gertu bizi duten pertsonak ere bertaratu ziren, eta horiek lanketa egitea ere garrantzitsua da, egoerak gainezka ez egiteko.

Lanketa behar da

Gaia lantzeak, heriotza bideratzeko tresnak ematen ditu Death Caferen sustatzaileen arabera, eta halako foroak indarra hartzen hasi dira. "Gizartea hasi da pixka bat esnatzen, eta herritarrak hasi dira heriotzarekin eta doluarekin lanketa egiten". Haren ustez, "gorde eta estali" egiten dira sentimenduak, baina horiek beren lekua eman behar zaie, "lagundu" egiten duelako. Izanek uste du herritarrek, oro har, heriotzaren aurreko lanketa egin gabe dutela. "Ez digute irakatsi nola egin, eta ikasi dugunok kolpe bidez ikasi dugu. Baina lanketa ere egin dugu; izan ere, kolpeak etor daitezke, baina kolpeekin zer egin norberak erabaki

behar du". Beristainen arabera, "norbere heriotza" barneratzeak lagun dezake dolua egiten. "Nik dolua egin dezaket aldameneko pertsona hil delako, baina nire heriotza ez onartzeak ez dit batere lagunduko. Heriotzaz pentsatzen dudak bakoitzean antsietatea sortzen bazait, nola egingo dut dolua? Dolua minetik egingo duzu, eta ez duzu pasatuko".

LEKUKOTZAI

||Izen-abizena. Maite Urbietta.

||Jaioturtea. 1977. ||Herria. Azpeitia.

||Bizilekua. Azpeitia.

"Inork ez du heriotzari buruz hitz egin nahi"

"Ez nekien Death Cafe bezalako saioak existitu ere egiten zirenik. Lehenik kartel bat ikusi nuen kalean, eta ez zidan ezer berezirik sentiarazi, baina gero berriro agertu zitzaidan Facebooken. Une horretan, momentu txar bat bizitzen ari nintzen; udan, lagun bat hil zen, 42 urterekin, eta barruan zurrumbilo bat neukan. Borroka bat nuen barruan, beldurrak azaldu zitzaizkidan: "Laguna 42 urterekin hil bada, zergatik ez naiz ni hilko?", pentsatzen nuen. Ez da erraza kalean horretaz hitz egitea, inork ez baitu heriotzari buruz hitz egin nahi. Horregatik, Death Cafe saiora animatzea erabaki nuen: 'Ea zer den', pentsatu nuen.

Beldurrak etorri zitzaizkidanean, arraroa ni izango nintzela pentsatzen nuen. Heriotzaz hitz egiten ez dugunez, ez dakizu kezka horiek zuk bakarrik dituzun, edo Azpeitia erdia zure egoera berean dagoen. Eta nire antzeko egoeran dagoen jendea dagoela ikusteak lagundu zidan bakarra ez nintzela konturatzen, ez nintzela ari zorutzen jabetzen.

Lasaitzen lagundu zidan tertuliak. Besteen esperientziak entzunda eta ikusita batzuek ez dutela hiltzea nik ikusten dudak bezain beltza ikusten, zera pentsatu nuen: 'Jende askok aurrera irteten du, beste ikuspuntu batzuk ere badaude, denborak laguntzen du...! Gaiaz hitz eginda bakarrik, barruan nuen korapiloa pixka bat soltatu zitzaidan.

Heriotzarena ez da gai erraza, ez hitz egiten duenarentzat, eta ez entzuten duenarentzat. Hitz egitea zaila egiten zaigu, baina laguntzeko ere ez daukagu erraztasunik. Pertsona bat hiltzen denean, esaldi batzuk baino ez dakizkigu esaten: 'Nahigabeen laguntzen dizut', 'animo', 'hau ere pasatuko da'... Baina beste armarik ez dugu. Gaia behar bezala ez dugulako lantzen gertatzen da hori.

Egoera horren aurrean, tertuliara joan izana



Maite Urbietta.

oso esperientzia ona izan zen niretzat. Baina ona baino gehiago, beharrezkoa iruditu zitzaidan. Nire ustez, ez da heriotzari buruz hitz egiten. Adibidez, lagunaren artean gai hori ateratzen da, eta beti esaten du norbaitek: 'Zerbait alaiagoagatik hitz egingo dugu'. Denok dakigu hil egin behar dugula, baina ez dugu horretaz hitz egin nahi, eta tabu izate horrek berak beldur gehiago ematen du. Death Cafe saioan berriz, naturalago bihurtu genuen gaia.

Iruditzen zait gure inguruan jende askok ikuspuntu antzekoa duela. Hiltzean dena bukatzen dela uste dugu, gerta daitekeen txarrena dela hori; dena beltza ikusten dugu. Eta uste dut, gaiaz gehiago hitz egingo bagenu, lasaiago hartuko genituzkeela gauzak.

Ideala izango litzateke Death Cafe bezalako espazioak sortu beharrean, kalean normaltasunez hitz egitea gaiaren inguruan. Baina lehen urratsa izan daiteke horrelako saioak antolatzea. Agian, tertulia egin izanak berak bakarrik elkarriketa sortuko du kalean.

Zorteduna sentitzen naiz saioa une eta leku egokian tokatu zaidalako. Agian, lehenago antolatu izan balute, ez lidake atentziorik emanago, baina une horretan asko lagundu zidan. Neu soltatzeko baino gehiago, entzun nuen

guztiak lagundu zidan. Aberasgarria iruditu zitzaidan lasai hitz egiteko toki bat edukitzea. Agian, horixe zen behar nuena. Ez dizkit beldur denak kendu, baina askoz lasaiago nago. Beste patxada batekin hartzen dut heriotza.

Uste dut aldi berean konturatzen garelako hilko garela eta bizirik gaudela. Askotan, ez gara konturatzen bizirik gaudela, konturatu gabe joaten gara bizitzan aurrera. Nola ez dugun pentsatzen hil egingo garela, ez dugu pentsatzen bizirik gaudela ere. Eta hil gaitzkeela onartzen dugun momentuan konturatzen gara bizi garela; orduan, beste balio bat ematen diozu momentuari. Nik ez nuen pentsatzen hilko nintzenik, baina ez nuen pentsatzen bizirik nengoetik ere. Orain, inoiz baino biziago nago. Eta bizirik egonda ere, triste egon zaitezke, noski".

LEKUKOTZA II

||Izen-abizena. Saioa Garmendia.

||Jaioturtea. 1979. ||Herria. Astigarraga.

||Bizilekua. Azpeitia.

"Maitasuna falta da heriotzaren prozesu osoan"

"Hamar urtez erizain laguntzaile lanetan aritu nintzen adinekoekin, gauez, eta heriotza gertutik bizitzea tokatu zitzaidan. Horregatik, zaintza aringarrien formakuntza bat egitea erabaki nuen, hiltzearen jendearekin nola lan egin ikasteko. Ikastaro horretan ezagutu nuen izan, eta hark kontatu zidan Azpeitian egingo zela Death Cafe saioa. Animatu egin nintzen.

Tesina bat ere egin dut formakuntza amaitzean: hiltzearen den gaixoa etxean zaintzen ari den pertsonaren beharrak aztertu ditut bertan. Gaixoak zaintzen ari diren pertsonak sarritan ez dira izaten osasun arloan trebatuak, halaber harrez gertukoren bat zaindu beharra tokatu zaienak baizik, eta ikasi egin behar izaten dute pertsona hori zaintzen. Tesinak kontatzen du pertsona horiek bestea zaintzeko dena ematen dutela, eta askotan beraiek baztertuta gelditzen direla. Beraiek ere laguntza behar dute, eta haiei laguntzeko asmoz egin nuen lana.

Kontraesan batzuekin egin dut topo lanean. Hiltzearen den gaixo bat etxean duten edo izan duten 30 laguni egin diet galdeketa, eta haien %80k pentsatzen dute heriotzan. Hala ere, oso gutxi hitz egiten dugu horretaz. Gainera, %90ek esaten dute etxean hiltzea iruditzen zaiela duin hiltzea. Eta triste da, baina oso jende gutxi hiltzen da etxean, lautik bat; gainontzekoak ospitalean hiltzen dira.

Nik beti zera esaten dut: heriotza dela bizi-

zateagatik ordaindu behar dugun prezioa; hori ezin da saihestu. Inork ez dugu hortik pasatzea nahi, baina heriotza pixka bat gehiago onartuko bagenu, gaia pixka bat normalizatuko bagenu, askoz ere lasaiago biziko ginatete denok.

Guztiok bizi izan dugu gertukoren baten heriotza eta tokatuko zaigu bizitzea. Ez da pasatzen ez den gauza bat; egunero gertatzen da, pasatuko da, eta guri ere pasatuko zaigu. Ez dugu beti heriotzan pentsatzen egon behar, baina kontziente izan behar dugu trantze hori guk ere pasatuko dugula. Inork ez dugu nahi hil, eta gaizki pasatzen dugu gertuko norbait hiltzen denean, baina gai izan behar dugu horretaz hitz egiteko.

Heriotza gertu dugunean, sarritan ez dakigu zer egin, nola jokatu; nire lana tarteko, asko nabaritzen dut hori. Adinekoen egoitzetan, egoiliar bat hiltzen ari denean, sarritan ikusten dut senitartekoak nola egoten diren: urduri, beldurtuta, nahikoa lan izaten dute beraien sentimenduekin... Halako egoeretan, profesional batek zenbait aholku emateak asko laguntzen die, eta gainera, asko eskertzen dute hori. Askok ari gara hobetzen; gero eta errespetu handiagoz jorrotzen dira halako egoerak.

Gainera, pertsona bati lasai hiltzen laguntzea oso esperientzia aberasgarria da. Geratzen garenontzako maite dugun pertsona bat lasai hil dela ikusteak dolua askoz ere hobeto

egiten laguntzen du. Batzuetan ezin da bizitzarik salbatu, eta halakoetan, hiltzen lagundu behar zaio maite dugun pertsonari. Zer den hiltzen laguntzea? Momentu horretan, pertsona horren ondoan egon eta erabateko presentzia izatea. Ez duzu ezer egin behar, hortxe egon baino ez. Besarkatu, eskutik heldu, muxu eman... Berarekin egon. Kontziente izan egoeraz, eta egon.

Uste dut aurrera beharrean, atzera goazela. XV. mendean, Ars Moriendi izeneko kristau gida batzuk zeuden, nola hil behar zen ikasteko. Gainera, XVIII. mendean, norbait hiltzen zenean, herri guztia joaten zen haren etxera, nahiz eta pertsona hori ez ezagutu. Horrez gain, gure aitona-amonon garaian, hamar seme-alaba jaiotzen ziren, eta bi hiltzen ziren; etxekoek sufrutuko zuten, baina normalizatua go zegoen gaia. Lehen, ez ziren beilatokiak existitzen, etxean egoten ziren gorpuak, kaxa batean, eta nahi bazenuen ukitu egiten zenituen; argazkiak ere ateratzen zitzaiekien. Egungo beilatokiak, berriz, oso hotzak iruditzen zaizkit; beste era batera antolatuko nituzke. Garai batean, hildakoei etxean egiten zitzaaien agurra, eta orain, zer egiten dugu? Agurra ahalik eta azkarren egin, eta berehala lurperatu edo erre. Ez dugu ikusi nahi hildakoa. Tapatu nahi dugun gauza bat da, baina hor dago. Nire ustez, maitasuna falta da heriotzaren prozesu osoan. Pixka bat gizatiartu behar dugu gaia.

Nik ere sekulako ikara izan diot heriotzari. Ama izan nintzenean, nire umeei zerbait gertatuko zitzaieen beldur nintzen. Eta horrela, ez zara bizitzen, denbora guztian sufrutze bantzaz. Zainketa aringarrien ikastaroa egin nuenean, ikasi nuen, onartu nuen, hil egingo naizela, eta horrek sekulako bakea eman dit. Ez dut hil nahi, baina hilko naizela benetan onartu dudantetik, beste bake batekin bizi naiz.

Iruditzen zait ez garela ari bizitzen. Nola bizi gara? Beldurrekin, presaka... Pixka bat kontzienteago bizi behar dugu. 'Bihar hau egingo dut' eta 'gero hau egingo dut' pentsatuz bizi gara. Eta orain, zer ari zara egiten? Gizarteak bultzatzen gaitu horrela bizitzera, baina guk pixka bat gelditu egin behar dugu. Lasaiago bizi behar dugu; barruko bakea behar dugu denok. Eta horretarako, heriotza onartu behar da; hilko garela onartzen dugun unean beste era batera hasten gara bizitzen.

Argi dago heriotzaren gaia normalizatu egin behar dela. Gertukoren baten heriotza bizi izan duena bere minarekin geratzen da, eta horrelako tertuliak ondo etortzen dira bakoi-tzak bere kezkek azaltzeko.✳



Saioa Garmendia.

Bizitakoa ikasbide

Alkoholismoak mila aurpegi ditu, eta horietako bat da senideena. Haien ongizatea bermatzea xede duen talde bat bada Azpeitian: Izarraitz Al-Anon. 📌📍 Ane Olaizola

Astelehen iluntzea da, eta astero bezala, 20:00ak jotzearekin batera elkartu da Izarraitz Al-Anon taldea. Goxo dago taldeak Soreasu kalean duen egoitza, eta halaxe ekin diote gaurko saioari Laurak, Mariak, Mirenek, Teresak eta Anak –asmatutako izenak dira guztiak–. Astea zer moduz igaro duten galdetuta ekin diote bilerari, eta guztiak ulerkorrak dira bataren eta bestearen hitzekiko. Izan ere, denek gauza bera dute komunean: senide eta gertuko alkoholikoak dituzte edo izan dituzte. Hori da bost lagunak lotzen dituen lokarria, baina bakoitzak bere istorioa du atzean, alkoholismoak mila forma har baititazake. Gertutik bizi izan dute gaixotasuna, eta hein batean, beraiek ere eri bihurtu direla aitortu dute. Hariei tiraka eta batak besteari entzunez, esperientzia dute ikasbide, eta lotzen dituen soka askatzen saiatzen dira astero.

Alkoholismoaz hitz egitean, estereotipoetan erortzeko arriskua egon ohi da, baina jatorri bera duten hamaika istorio eta bizipen daude hura sufritu duen pertsona bakoitzaren atzean, eta horren erakusgarri da Izarraitz taldekoen errealitatea. Saioan, Mariak hartu du lehenik hitza, eta hark azaldu du amak “arazo larriak” zituela alkoholarekin eta senarra alkoholikoa zela. Bereizi egiten ditu bi kasuak: “Amari ez zioten inoiz gaixotasuna diagnostikatu, eta hark ere ez zuen inoiz aitortu alkoholikoa zela. Ama ez nuen inoiz edaten ikusi, baina beti gaixo zegoen. 17 urte nituenean, psikiatrikoan



sartu zuten delirium tremensak jota, gehiegi edan zuelako. Orduan esan ziguten amak arazoa zuela alkoholarekin. Senarra, berriz, behin bakarrik ikusi nuen mozkortuta, baina txikiteoa egiten zuen, eta edaten zuenean, beste pertsona bat bihurtzen zen; obsesiboa zen edo zer gauzarekin. Behin ingresatu egin zuten, eta guk uler genezan, senarrak alkoholari alergia ziola esan ziguten. Hari alkoholismoa diagnostikatu egin zioten, eta berak ere aitortu zuen gaixotasuna zuela”.

Laurak ere ildo beretik hitz egin du, eta adierazi du senarrari gehiago alkoholik ezin izango zuela edan esan ziotenean, gizona “izututa” geratu zela. “Sendagileak hori esan zigunean eta nire senarraren aurpegia ikusi nuenean jabetu nintzen zuen arazoaz. Orduan hasi zen gure borroka: nirea, senarrak edan ez zezan, eta senarrarena, edan zezan. Borroka horretan hondoa jo nuen, fisikoki zein emozionalki akitu ninduen”.

Familian kutsatzen den gaitza da alkoholismoa, taldekideen hitzetan. “Pertsona bat dago edaten duena, baina bere inguruan bizi

garenok haren edateko moduaz kutsatzen gara. Guk ere ohitura batzuk hartzen ditugu, arazoei aurre egin nahian”. Dena den, Al-Anonera jotzen dutenek azpimarratu dute alkoholaren aurrean senideek eta lagunek ezin dutela ezer egin, eta hori onartzea da lehen gakoak: “Onartu egin behar dugu alkoholaren aurrean ahalmenik ez dugula, ondokoak edatea nahi badu, edan egingo duelako. Hona etortzerako, mila aldiz saiatu gara gure senideek alkohola utz dezaten, baina hori ez dago gure esku”, esan du Laurak.

Idea horretatik abiatuta, taldekideek argi dute bileretara beraien ongizatearengatik joan behar dutela, ez alkoholaren mendean daudenen ongizateagatik. “Senideek eta lagunek norbere buruan pentsatu behar dute, aldaketak egin eta hobeto bizi daitezten. Gu ahalik eta ondoen egoten saiatzen gara hemen”, esan du Mirenek. Bilerako bakoitzean gai jakin batez hitz egiten dute, eta gaurkoan, norbera den modukoa izatearen garrantzia aritu dira hizketan. Al-Anonek dituen liburuak dituzte horretarako abiapuntu, eta horietako baten zatia irakurri du Mariak. Besteak beste, norberaren askatasuna, norberarekiko zintotasuna edota norbere burua maitatzea jorratu dute irakurketan. Izan ere, Mariak adierazi du senideak gaitxoaren “apendizak” izan ohi direla: “Gaixoak etxean geratzea nahi badu, guk ere han egon behar dugu askotan. Baina guk ere aukeratu egin behar dugu zer egin, hori familian arazo bilakatu gabe eta elkar ulertuz eta negoziatuz”. Bide horretan, Anak “aldaketa handia” eman duela esan dute taldekideek; izan ere, duela urte batzuk arte, senarrarekin tabernan egon behar izaten zuen hark, “senarrak handik joatea erabakitzen zuen arte”.

Bileretara joaten hasi zirenetik, izaera eta jokatzea asko aldatu zaizkiela sumatzen dute taldekideek. Mariaren arabera, oso garrantzitsua da alkoholaren mende dagoen pertsonarekin edan gabe dagoenean hitz egitea. Zerbait hitz ematen dutenean, berriz, esandako hori betetzea “oinarrizkoa” dela deritzo: “Bi aldiz pentsatu behar duzu esandako hori beteiko duzun edo ez. Esan eta betetzen ez baduzu, galduta zaude”. Laurak, berriz, senideekin izaten diren eztabaidetan “bestelako bideak” hartzearen garrantzia azpimarratu du: “Senarra eta biok sesioan hasten ginenean, zirkulu batean sartzen ginen beti. Uste duzu beti gurpil horretan joan behar duzula; gaixoarekin duzun harremana ere horrelakoa da, baina egun batean, beste bide bat hartzen duzu. Gaixoa, orduan, harritu egiten da, eta halako gauzek pentsarazi egiten diote. Aldaketa txi-

kiak dira, baina asko laguntzen dute”. Horrez gain, guztiek aitortu dute “obsesionatuta” egon direla alkoholarekin, baina hori ere kudeatzen ikasi dute bileretan. “Lehen, pentsatzen nuen guztiaren kontrola izan behar nuela, eta ez nuen bizitza propiorik. Izugarriko sufrimendua zen bestearen bizitza kontrolatzen ibiltzea, eta hemen, gauza txikiekin, askatu egiten zara”, dio Laurak.

Taldekideak jakitun dira aldaketa horiek pausoz pauso egin behar direla, bidea ez baita erraza eta motza izango. Bidenabar, beste pertsona entzutea garrantzitsua dela adierazi du Teresak. “Gogoratzen naiz Al-Anonera etorri nintzen lehen bileran hartan oso urduri nengoela. Jende ugari zegoen, eta guztiak irribarretsu zeuden. Nik, berriz,flan bat nirudien. Astero bileretan entzundakoa buruan hartu eta modu horretan eman diot buelta arazoari”.

Bizkarreko motxila hustu

“Hona etortzen hasten garenean, mila zalan-tza izaten ditugu: ondoan dudana alkoholikoa izango ote da? Arinegi pentsatzen ari ote naiz?”. Ordea, bileretara joaten hasteko baldintza bakarra honako hau da: “Senide edo lagun batek daukan edateko moduak kezkatzen duen edonor batu daiteke taldera”. Al-Anonera jotzeko, ez dago izena eman beharrik, eta saioetan ez diote inori zer egin behar duen esaten. “Kide berri bat etortzen denean, esaten diogu gu ere hortik igaro garela eta zer egin dugun horren aurrean, baina guk ez dugu ezagutzen gaixo hori, eta berak erabaki behar du zer egin”. Kide berriek “motxila beteta” izaten dute, eta aurreneko gauza izaten da haiei entzutea. “Hasieran, beharbada, ez dute ezer ulertuko, eta askok uste dute pilula magiko batek dena konponduko duela, baina hemen ez dago halakorik. Jarrera aldatzea da kontua”. Anonimotasunak, gainera, berebiziko garrantzia du taldean, eta saioetan kontaktatzen dutena saioetan geratzen da. “Hona etortzen garenok zama handia izaten dugu, eta, agian, inori esan ez dizkiozun gauzak kontaktatzen ditugu hemen. Hemen ulertzen gaituen jendea dago, eta beste modu batean irekitzen gara”.

Bost emakumeek berretsi dute “benetako pisua” kendu dutela Al-Anoni esker, eta beraien jarrera aldatetik inguruan eragina izan duela adierazi dute, baita alkoholaren mende egon direnengan ere. Jada ez dute alkoholismoaren arazoa etxean, baina bileretara joaten jarraitzen dute, “bizitzaren filosofiatzat” hartzen dutelako taldea. “Bizitza ikusteko modua” aldatu zaie senideei, saioetan jasotakoa bizitzaren arlo guztietan jartzen baitute praktikan.*



Pello Iratin: harremanak (III)

Azken kontaktetan genion, Pello Iratin bakartua egon zela udazkenetik udara. Bakartua bai, baina bakarrik ez. Urtean zehar hainbat eta hainbat pertsonaia ezagutzeko eta haiekin nolabaiteko tratua mantentzeko parada izan zuen.

Ezpainenetan irribarretxoa du eta begiek dizdiz egiten diote bizi izan zituen harremanez mintzatzerakoan. Horrelako egoeran, noski, hartu-emanen balio handiago ematen zaie.

– Leku ezezagun edo berri batera joaten bahaiz, hango berri edo han zerbait egiteko asmotan bahabil, lehenik herriko apaizarengana jo, Luix.

– Bai, hori lehen izango huan, Pello. Baina orain... apaizak nekez topatuko dituk herri txikitetan, ezta?

– Beno, nik zorte itzela izan nian. Bai Orbaizetakoa, Jose Luis, eta bai Garaikoa, Koldo, izugarri ondo portatu hituan nirekin. Laguntza estimagarria jaso nian beraiengandik.

Urtegiko zaintzailea

Pellori aurpegia liluratzan zaio Aquilino Barberanaz, Irabia urtegiko zaintzaileaz, gogoratzen denean. Txabolatik hiruzpalau kilometrorra zegoen haren etxea. Pello bakarrik, eta Aquilino ere bakarrik.

– Beharra sentitzen nuenean-edo, bisita egiten nioan. Eta jakina, otordua ziurtatua, ardo eta guzti. Eta agurrean: “Gelditu gaur, eta hemen lo egin”. Badakik: biak egoera berean, eta izugarri estimatzen genian elkarren konpainia. Egun batean, elurretan iritsi eta nire erraketei erreparatu: “Baa!, horiek ez dute balio, ezta...” Zur eta lur gelditu nitian bere aitona egindako erraketak erakutsi zizkidanean. Pago geruzaz eta zaldiaren zurdarekin egindakoak. Ikusgarriak. Gizon jakintsua eta ona, Aquilino. Berarengandik zenbat ikasi nuen...

Nola diren gauzak. Pellok handik urteetara Aquilinoren biloba ezagutu zuen Azpeitiko



||||||| Luis gurrutxaga |||||

||| “Lau seme-alabekin bizi hituan. Eta badakik zein zen semeetako bat? Mikel, Mikel Zabaltza”

saskibaloi taldean jokatzan, ia bi metroko mutil kankailua.


Orbaizetako ola zaharreko familia

Txabolak ez zeuden prestatuta gazta ekoizteko. Arazoari irtenbidea aurkitu nahirik, artzaiei lagundu asmoz, apaizarengana jo zuen Pellok aholku eske. Hark Orbaizetako ola zahararen ondoan bizi zen familia batengana bidali zuen.

– “Gainera, etxeoandrea euskaraz mintzatzen da”. Hori entzun nuenean, nire pozal Garbiñe getariarra huan. Emakume prestua. Gizona, bertakoa; hitz gutxikoa, baina era berean hurbila. Lau seme-alabekin bizi hituan. Eta badakik zein zen semeetako bat? Mikel, Mikel Zabaltza.

Bai, handik lau urtera Intxaurrendoko zorigaiztoko koartelean basatiki torturatua, erahila eta Bidasoa ibaira jaurtia izan zena. Hau kontatzean, Pello nostalgiaz gainezka sentitzen da, harreman zintzoa eta leiala baitzuen familiarekin.

Memorian baditu beste harreman batzuk, adibidez, Iparraldeko hiru artzainekin bizitakoak, –“hiru artista”–, baina datorrenean kontatu beharko.*



“Proiektu batek ez badu aurrera egiterik, itxi eta berri bat hasi”



Aintzane Agirre Zurriarain azpeitiarra da eta 21 urte ditu. LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduako 4. mailako ikaslea da.

Definitu apur bat zure burua: ba al duzu zaletasunik?

Ez daukat hobby zehatzik, gauzak inprobisatzea asko gustatzen zait. Garrantzitsuena uanean unekoa bizitzea da. Lanari dagokionez, turismo edo hezkuntza alorretan aritzea gustatuko litzaidake.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua?

Beti atera izan ditut nahiko nota onak. Nire bizitza planeatuta zegoela zirudien, eta hasieran horregatik pentsatu nuen Zuzenbidea eta Enpresa Zientziak ikastea, hau da, asko ikasi behar den gradu horietako bat egitea aurreikusten nuen. Azken uanean, baina, zera pentsatu nuen: “Ni ez naiz horrela-

koa”. Izan ere, etorkizuneko lanpostu on batean soilik ari nintzen pentsatzen. Gauzak horrela, beste zerbaiten bila hasi nintzen, LEINN aurkitu nuen arte. Ate Irekietan ez nuen oso ondo ulertu zer zen gradu hori, baina berehala konturatu nintzen bestelakoa zela, disruptiboa, eta nire nortasunarekin bat zetorrela. Gauza berriak esperimentatzeko aukera eman eta dena zure esku uzten duen gradua zela ulertu nuen.

Zergatik hautatu zenuen Mondragon Unibertsitatea?

Gradua aukeratu nuen, gehien bat, eta ez hainbeste unibertsitatea.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizi izan duzun esperientzia?

LEINN gradua aukeratzea izan da bizitzan egin dudana aukera onenetako bat; batez ere, titulu bat lortzeaz gain, bizitzaren inguruan asko irakatsiko didalako. Lehenengo unetik ari zara mundu erreal batean lanean, eta modu horretan ikasten dena ez duzu beste inon ikasi-

ko. Ez dizu nota batek esango egin duzun lanak balio duen ala ez; zuk egindako ekintzek esango dizute egiten ari zarenak balio duen ado ez. Bestalde, ikastaldea ere egundoko garrantzia du. Finean, denok oso ezberdinak gara -ideologia eta hizkuntza ezberdinak nahasten dira eskoletan-, eta guzti hori kudeatzeak balio handia dauka: besteari entzuten jakitea, eztabaidaren garrantzia hartzea, eta abar. Ia beste familia bat osatzen dugu taldekideok.

Nola definituko zenuke Enpresagintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Guztiz disruptiboa da metodologia. Aukera daukazu zure pasioen inguruan esperimentatzeko, eta bidaiak ere oso garrantzitsuak dira; izan ere, Txinara edo Indiara joanda asko ikasten duzu toki horietako enpresei buruz. Orain dela gutxi, adibidez, kolaborazio bat lortu dugu Indian. Hori bertan egindako lanaren fruitua da, noski.

Ikasi bitartean lan egiteak

abantaila asko izango ditu, ezta?

Jakina. Konpetentzia ezberdin ugari ikasten dituzu, hala nola teknikoak eta jarrerari dagozkionak, mundua jateko jarrerarekin irten beharra baitago kanpora. Landu genuen proiektuetako batean, esaterako, zortzi gazterekin bidaia turistikoa bat antolatu genuen Interrailean. Beste proiektu bat ere egin genuen: 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako udaleku batean, gure metodologia ezarri eta ikasketa aktiboa sustatu genuen, gaztetxo horiek zeharkako konpetentziak landu zituzten eskolaz kanpoko ekintzetan.

Etorkizunera begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Azken ikasurte honetan, kooperatiba bat sortu dugu turismoa eta hezkuntza lotzen dituzten proiektuekin aurrera egiteko. Beti beldurrik gabe aritu behar da; proiektu batek ez badu aurrera egiterik, itxi eta berri bat hasi. Beti daude aukerak.

Sexu aniztasuna, taulara

Gehitu elkartearen enkarguz, 'Käffka' antzezlanaren sortu du Kamikaz Kolektiboak, eta hasi berri duen biraren barruan iritsiko da obra Azpeitira. Sexu aniztasuna ikusaraztea du helburu lanak. 🍷 Ane Olaizola

Sexu askatasuna ikusaraztea eta gaiaren inguruan gizartearen sentsibilizazioa helburu duen Käffka antzezlanaren taularatuko dute hilaren 15ean, ostiralean, Soreasu antzokian, Emakumeen Txokoak antolatuta.

Bi emakumeren arteko maitasun harremana du oinarri istorioak, eta konpainiak etorkizuneko gizartearen irudikatu du hura mamitzeko; 2049. urtean, munduak kataklismo bat izan du, gizarteak Lurraren baliabide naturalak agortu ondoren. Gertaera horretatik bizirik ateratu direnak arau zorrotzak jarraitu behar dituzte gizarte berri horretan bizi ahal izateko. Horietako bat da pertsonen ezin dutela pasiorik sentitu, baina nerabezaroan gauza zaila izan daiteke hori. Hori hala, eragin dezaketen kaosa saihestu nahian, nerabeak kontrolpean izateko Käffka izeneko guneak sortu dituzte, eta gazteek heziketa berezia jasotzen dute han. Gune horietako batean bizi dira antzezlaneko bi protagonistak.

Gehitu Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkartearen enkarguz gauzatu du Kamikaz Kolektiboak obra. Iaz Errenerian aurrestreinatuta osten, hasi berri den urtean abiatu du konpainiak bira, eta horren barruan iritsiko da herrira.

||| DATUAK |||||

||| Zer. Käffka antzezlanaren.

||| Eguna. Otsailak 15 (ostirala).

||| Ordua. 19:30 ||| Tokia.

Soreasu antzokia.

||| Antolatzailea. Azpeitiko Emakumeen Txokoa.

Erika Olaizola azpeitiarra da Kamikaz Kolektiboko kideetako bat, eta hark idatzi du obraren testua, Amancay Gaztañaga eta Miren Gaztañaga taldekideekin batera. Agertokira, berriz, honako aktore hauek igoko dira: Iraia Elias, Mikel Iburguren, Edurne Azkarate, Amaia Irazabal eta Oier Guillan. 12 eta 17 urte bitarteko nerabeei eta haiekin bizi diren helduei zuzendutako obra da.*

||| DATUA |||||

5 aktore. Käffka antzezlanaren bost aktore izango dira agertokian: Iraia Elias zarauztarra, Mikel Iburguren zestoarra, Edurne Azkarate oiondarra, Amaia Irazabal santurtziarra eta Oier Guillan donostiarra.*



Käffka antzezlaneko lantaldea. ||| Kamikaz Kolektiboak

||| BESTERIK |||||

1 Luar Na Lubre taldearen emanaldia

Galiziako taldea Azpeitian izango da. Taldeak 32 urte daramatza agertokiz agertoki, folk galiziarra eta musika zelta lau haizetara zabaltzen.

||| Eguna. Otsailak 9 (zapata).

||| Ordua. 22:00 ||| Tokia.

Soreasu antzokia.

||| Antolatzailea. Kulturaz.

2 Sexismoaz solasaldia

Nerea Barjola EHUko doktoreak 'Microfisica sexista del poder' liburua aurkeztuko du.

||| Eguna. Otsailak 20

(asteazkena). ||| Ordua. 18:00.

||| Tokia. Emakumeen Txokoa.

3 Armagintzari buruzko dokumentala

'Gerra hemen hasten da' armagintzari buruzko ikusentzunezkoa emango dute.

||| Eguna. Otsailak 13

(asteazkena). ||| Ordua. 19:00.

||| Tokia. Sanagustin

kulturgunea. ||| Antolatzailea. Elkar-ekin.*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

LAU NEUMATIKOAK
PREMIATUAK - MEKANIKA AZKARRA
943 053056 (abuztuak: 20, 20/30 Argala)

ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRISTAS
Jose de Arrese, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Bni Oado, 28
Tel. 943-851445
AZKOITIA

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
alerzabutoak@telefoniza.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Berrikuntzaz beteta itzuli da Urkide Jatetxea



Aire freskoak iritsi dira Azpeitia eta Azkoitia arteko Basarte industriaguneko Urkide jatetxera. Izan ere, eskuz aldatuta, jatetxea aro berri batean murgildu zen 2018ko ekainean. Orduz geroztik beste esku batzuk arduratzen dira tabernaren zaintzaz eta kudeaketaz. **Jose Luis Ran da errezeta berriaren arduraduna, hark hartu baitu sukaldearen eta zerbitzuaren gidaritzia.**

Bezeroenganako gertutasuna eta goxotasuna oinarri, jan-ederako eskaintza berria eta oparoa dute Urkiden. Kaleko bizitza eta industriaguneko erritmoa ezberdinak direla jakitun, erronkari eusteko eta gauza berriak probatzeko prest dago Ran; su baxuan eta mimoz.

Lan kontuengatik munduan zehar asko bidalatu duen pertsona da Ran: besteak beste, Europako, Afrikako eta Amerikako hainbat txoko zeharkatu ditu. Bidaia horietan ikasitakoak eta ikusitakoak nabari daitezke Ranek prestatutako jakietan.

Eskaintza eta bereizgarriak

Urkide jatetxera hurbiltzen diren herritarrek denetarik topatuko dute bertan, hala nola pintxo hotzak zein beroak, ogitarteko eskaintza zabala, eguneko menua eta asteburueta menu berezia. Askotariko arrozak, kalitate bikaineko okela, arrain freskoak zein itsaskiak ez dira falta Urkide jatetxeko jakien zerrendan.

Bezeroen eskariak asetzea da Urkide jatetxeko nagusien nahia: ohiko menuetan jasotzen ez diren platerak ere prestatzen dituzte, bezeroek aurrez horrela eskatuz gero. Argi dago: **bezeroen nahietara egokitze prest daude Urkiden.**




Astelehenetik ostegunera: 07:00etatik 19:00etara.
Larunbatetan: 08:30etik 16:00etara eta 20:00etatik itxi arte.



943 85 04 59

||| **HITZ GEZIDUNAK** |||||

	Burusoil	Uhinak, olatuak	Nafarroako udalerrria	Eragotzi	Pluralean, fusil arina
	Salakuntzak	Egile atzizkia	Adoreak	Liburuki	
	Deitura	Modua	Aramako herritar	Txakurra	Imajina
Bizkaiko udalerrria	Nork atzizkia	Belardi	2	Lehen biak	
Abaoa	Arabako herritar	Potasioa	Azal mehe	Urtaro bero	
Urkatzera behartu	Aurizki ekologiko	Bururdi txiki	Musika nota	Izena	
Nafarroako kontzejua	* Izena	50	Dago	Bokala	
1000	Zigorak	Kontso-nantea	Bokala	...	

 **Egilea: Luma**

* Filologo azpeitiarra

||| **SUDOKUA** |||||

				5			6	4
8				2	7			
		7	6	9				8
	7	6			9			
	1				3			
	5			3	8			
4			5	3	7			
		6	9				2	
7	1			2				



Il Partigiano

DENDA BERRIA

SALBE 23, BEHEA Tel: 943 08 09 13

||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: HITZ GURUTZATUAK |||||

HITZ GURUTZATUAK

Ezker eskuin

1. Ekintza gaitzesgarria. Frantziako iparraldeko hiria. 2. Gurearekin senidetuta dagoen herri lapurtarra. Boroaren ikur kimikoa. 3. Sarrerak dira, baina irteerak ere bai. Hiltzeko tresna. 4. Margoturik. 5. Zilarra balio du. Utero. 6. Zelai. Area-go. Bokal errepikatua. 7. Bizkaiko herri bateko. Lehena eta azkena. Kontsonantea. 8. Arnas ezak hil. Edari bizia. 9. Larruak. Bizkaieraz, bezala. 10. Beherakoa. Mina edo oinzea adierazteko interjekzioa.

Goitik behera

1. Pluralean, olerki bat banatzen den lerro multzoetako bakoitza, bertsoak. 2. Zatitzen oso zaila. 3. Gauza bat aipatzen edo adierazten duen hitz. Fruituez mintzatuz, helduak direnak. 4. Eskaini. Lehenengo bokala. Egile atzizkia. 5. Nafarroa Behereko udalerrri bateko. 6. Lore honek ez du bokalik. Gironako ibaia. Eguzki. 7. Inauteriak. Bokala. 8. Errenkada, ilara. Zilbor. 9. Berrogeita hamar, zenbaki erromatarren arabera. Belearen familiako zenbait hegaztiren izen arrunta. Bizkaiko ibaia. 10. Ebakitzera behartu.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1					■					
2									■	
3						■				
4										
5			■							
6				■				■		
7						■			■	
8				■						
9								■		
10									■	

||| HITZ GURUTZATUEN SOLUZIOAK
 BIDALTZEKO EPEA. Otsailak 19 (asteartea) ||| NORA BIDALIZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. Hitz gurutzatuak zuzen osatu ondoren, moztu denborapasa eta gutunazal batean bidali.

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

K	A	L	I	K	A	M	●	O	R	O	●
A	●	A	D	●	L	●	I	K	A	N	I
N	I	X	U	K	●	O	R	E	B	I	●
I	Z	A	R	A	K	R	U	●	A	D	U
B	●	I	I	●	O	Z	A	R	A	●	
A	R	O	●	A	S	A	R	A	B	A	●
R	A	M	A	R	A	●	K	E	●	A	●
A	L	O	R	U	G	E	S	●			
K	●	●	B	●	B	●	K	●			

SUDOKUA

3	6	5	9	3							
7	1	8	4	2	6	5	9	3			
3	5	6	9	8	1	4	2	7			
4	9	2	5	3	7	6	8	1			
9	4	5	2	7	3	8	1	6			
2	6	1	8	9	4	3	7	5			
8	3	7	6	1	5	9	4	2			
5	2	4	7	6	9	1	3	8			
6	8	3	1	4	2	7	5	9			
1	7	9	3	5	8	2	6	4			

||| UZTARRIAREN URTARRILEKO LEHIAKETA ||

IRABAZLEA



Iñaki Ulazia
 Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 212. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa


Eñaut: 656 79 14 19
 Oier: 618 24 01 73
 kutxillo@gmail.com
 Damaso Azkue 6

%25 hazi ziren bisitak iaz

1.688.692 bisita izan zituen Uztarria.eus-ek 2018an; 2017an baino %25 gehiago. Bisitariak ia bost milioi orri zabaldu zituzten Uztarria.eus-en iaz. Bisiten %64,78 telefono mugikorretatik iritsi dira. 📱 Uztarria

2 018an ere marka guztiak hautsi ditu Uztarria.eus-ek bisitei dagokienez. Izan ere, webgunea sortu zenetik, Uztarriaren webguneak gora egin du bisita kopuruari erreparatu gero. Uztarriak bi neurgailu erabiltzen ditu datuak biltzeko: Google Analytics eta StatCounter. Lehen neurgailu horrek erakusten dituen bisitei dagozkien datuak beti izaten dira StatCounterrek jasotakoak baino apur bat txikiagoak. StatCounterrek 2005etik jasotzen ditu Uztarria.eus atariaren datuak, eta horiek publikoak dira; sarean ikus daitezke. 2018an, StatCounterren arabera, ia-ia bi milioi bisita izan zituen Uztarria.eus-ek, 1.988.141 bisita; aldiz, zabaldu-tako orrialde kopurua 4.800.287 izan zen.

Bi neurgailuen datuek erakusten dute Uztarria.eus-eko bisita eta zabaldu-tako orri kopuruek gora egin zutela 2018an. Asko igo dira bai bisitak eta bai orrialde



kopuruak, 2017ko datuekin alderatuta. Google Analytics-en arabera, 2018a izan da orain arte Uztarria.eus-ek bisita gehien izan dituen urtea; izan ere, joan zen urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, 1.688.692 bisita izan zituen (2017an baino %25 gehiago; orduan 1.350.579 bisita izan zituen webguneak Google Analytics-en arabera). Eguneko bisita kopuruaren batez bestekoak ere gora egin du; iaz, egunero, 4.626

bisitari izan zituen Uztarria.eus-ek. Bisita horietan, batez beste, bi minutu eta erdi pasatxo igaro zituzten dituzte erabiltzaileek; 2 minutu eta 39 segundo, hain zuzen ere.

Zabaldu-tako orrialde kopuruak ere nabarmen egin du gora; iaz 4.763.929 orri ireki zituzten herri-tarrek, eguneko 13.051 orri inguru. Zabaldu-tako orrialde kopurua %33 inguru hazi da, 2017ko datuekin alderatuta.

Azken urteetako bilakaerarekin jarraitzen du Uztarria.eus-ek; izan ere, gero eta gehiago dira Uztarria.eus-eko edukiak telefono mugikorretatik irakurtzen dituzten erabiltzaileak. 2017an lehen aldiz izan ziren bisiten erdia baino gehiago (%57,39) eskuko telefonoetatik iritsitakoak; 2018an gora egin du kopuru horrek, bisiten %64,75 izan dira mugikorretatik eginak. Ordenagailutik eta tabletetatik egindako bisita kopuruak, berriz, %28,47 eta %6,78 izan dira hurrenez hurren.

Sare sozialetan egindako argitalpenetatik Uztarria.eus-era sartutako erabiltzaileen bisita kopuruak behera egin du aurten ere; izan ere, 2016an bisiten %24 inguru iritsi ziren sare sozialetatik, 2017an %20 inguru eta 2018an %17,32. Sare sozialetatik bideratutako bisiten kopuru handiena Facebooketik iritsi zen iaz ere, %80,19. Twitterretik iritsitako kopurua %19,68 izan zen eta %0,1 Instagrametik sartutakoena.

Uztarriak joan zen abenduaren 31n argitaratu zuen urteko hamar albiste irakurrienen zerrenda, baina horiez gain, aipatzekoa da erabiltzaileek gehien bisitatu dituzten orriak Aktualitatea, Hilberriak, Agenda eta 2018ko Pourra izan zirela.

Eskerrik asko, Uztarria.eus bisitatu eta elikatu duzuen guztioi. ✨

KIMU BAT GARDEN

Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun ilatsu, lumadun eta ezkatadunentzako eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, z/g. AZPEITIA

Haur gizentasuna

OLATZ AIZPURU jostuna

Osasun publikoarentzat erronka garrantzitsua da haur gizentasuna. Arazoa gehiagora doala begi-bistakoa da: Europan 11 urteko hiru umetik batek gehiegizko pisua du. Ohitura osasuntsuak izateak, umeen ongizatea areagotzeaz gain, diabetesa eta gaixotasun kardiobaskularrak izateko aukerak murrizten ditu. Ume osasuntsuak heztea gure betebeharra da, eta beraien eskubidea. Etxea eta eskola dira ohitura osasuntsuk sustatzeko eremu naturalak. Horiekien lotuta, hemen proposamen batzuk.

Animatu zaitez beraiekin erosketak egitera. Horrela, garaiko frutak eta barazkiak zeintzuk diren ikasiko dute modu naturalean. Saiatu beraiek erabaki dezaten zer erosi, eta erositakoa elkarrekin kozinatu; oso dibertigarria izan daiteke, eta aukera bikaina ohitura egokiak sustatzeko. Ondoren, prestatutako guztia etxekoekin edo lagunekin dastatu. Eredu izan behar dugula ez ahaztu, eta hori ekintzekin erakusten da. Zer ikusi, hura ikasi!

Ohiturekin jarraituz, haurrek lo ordu asko behar dute, atsedena oso garrantzitsua da. Pantaila aurrean ematen duten denbora ere zaindu behar dugu. Ipurdiak astintzera animatu! Eta ez ahaztu haurren ahalegina goraiatzeari, pisua aipatu gabe! Egunen batean asko eskertuko dizute.*



aitziber aizpuru



- 1. Eskuz ala makinaz?**
Eskuz lan asko egiten dugu, ez gaude prestatuta dena makinaz egiteko.
- 2. Ohial preziatuena?**
Chanel deitzen dena.
- 3. Gehien saltzen dena?**
Denetik gutxi saltzen dugu,

- baina satina, puntua eta pañoa aipatuko nituzke.
- 4. Modako kolorea?**
Koadrodun edozein koloretako ehunak.
- 5. Estanpatuak modan al daude?**
Udan indarrez iritsiko dira estanpatu handiak.

- 6. Titarea... Beharrezkoa da.**
- 7. Zer da ezinbestekoa jostotzaran?**
Dena behar da lanerako.
- 8. Ohiko eskaerak?**
Ezkontzetarako arropak, Karnabaletarako trajeak...
Julene Frantzesena

IRENE ALTUNA
LORACENDA
Loiolako Bidea, 26 Tel: 943 81 51 87
www.aitziber.com

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Araoa, 5 AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

Ekain
ALBAITARI KLINIKA
Euzkadi Hiria, 34 20730 AZPEITIA Tel.: 943 15 10 40
Larmelak: 943 15 10 40

Alar
merzeria
Loiolako Auzo Hiribidea, 9 Tel: 688 81 87 78

ORDULARI
Jose de Arriba, 10 Tel: 943 81 52 44 20730 AZPEITIA

uba
Kontabilgintza, Itxarola, Segurak, Gestari Lanak, Finantza Administrazioa, Gestio Inmobiliarioa
Tel: 943 151 222 Fax: 943 151 272
Euzkadi Hiria, 41 • Tel: 943 151 272

KIRURI
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24 LOIOLA - AZPEITIA
Tfnua.: 943 81 00 08 Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTEA DISENU ESKOLA ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak (haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 18:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30
Talla 18:30 - 20:00
Jose Arrieta kalea, 3 943 81 28 08
arrieta@adi.com Matrikula arte osoan zabalik

Elegante, festan

Jai Karnabalean antzinakoz eta dotore janztea ohitura da Azpeitian. Kuadrilla festazale batek ekin zion Txikiteo Eleganteari duela 36 urte. 📌 Maialen Etxaniz

Pertsona batek baino gehiagok galdetuko du nondik datorren Jai Karnabalean egiten den Txikiteo Elegantea, noiz ospatu zen aurrenekoz edo zer dela eta egiten den. Gaur egun, adin guztietako herritarrak animatzen dira Azpeitiko festarik dotorenean parte hartzera, baina inork gutxi daki nondik datorren ohitura hori. Kuadrilla "festazale eta karnabalezale" baten burutape netik jaio zen dagoeneko tradizio bihurtu den festa. Arantxa Arregi (Azpeitia, 1944), Olatz Aranburu (Azpeitia, 1941) Maria Pilar Mendizabal (Azkoitia, 1941) eta Roxa Oiarzabal (Azpeitia, 1941) izan ziren Txikiteo Elegantearen sustatzaileak, baina "sekula" ez zuten pentsatu ohitura hura horren berezi bihurtuko zenik. Elkarrekin gogoratu dituzte sasoi hartako kontuak, nostalgiaz.

Arregi, Aranburu, Mendizabal eta Oiarzabal 1981. urtean irten ziren aurrenekoz antzinako arropa dotorez jantzita Jai Karnabalean eguerdian. Ordurako, karnabaleko moztaroen lehiaketan sari ugari zituzten irabazita. "Eskolan ez, baina karnabalean kontutan sari asko irabazi genituen", dio Oiarzabalek. Itsasi kultur elkartearen artzain-inudeen kalejirak piztu zien elegante moztarotzeko grina, eta ondo gogoan dute aurreneko aldia. Azaldu dutenez, Itsasik 1980. urtearen inguruan egin zuen aurrenekoz karnabalean egin ohi duen artzain-inudeen kalejirako Udal korporazioaren antzezipena. Dantza taldeko hain-



Lagun kuadrilla 1982ko Txikiteo Eleganteko kalejiran. |||Pepe Gil

bat kide antzinako alkatez, apaizez, erizainez eta jauntxo moztarotzen. Handik urtebetera, itsasik Jai Karnabalean dotore janztera animatu zituen herritarrak, horretarako dei berezia eginda. "Zergatik ez?" pentsatuta, Itsasiren proposamenarekin bat egin zuten lau emakumeek. Handik urtebetera Itsasikoen deia jaso zutela kontatu du Aranburuk: "Dantza taldearekin batera artzain-inudeen kalejiran irtengo al genuen galdetu ziguten, eta gu, festazale amorratuak izanik, animatu egin ginen". Bigarren aldiaren ondotik iritsi zen hirugarrena, eta modu horretan, "konturatzeko", kuadrilla hartan ohitura bihurtu zen Jai Karnabalean eguerdian dotore-dotore janztea. *Domingo Elegante* deitzen zioten

egunari. "Itsasiko artzain-inudeekin batera kalejira egiten genuen lehenik, eta poteatzera joaten ginen gero", azaldu du Mendizabalek. Ohitura horretatik dator jaiak hartu duen izena: Txikiteo Elegantea.

Josi, eta apenas erosi

Festa hari ekin zioten lagunek urte luzez jarraitu zuten ohiturekin, eta ia urtero jantzi ezberdin batekin irteten ziren kalera Jai Karnabalean. Kasik materialik erosi gabe sortzen zituzten Txikiteo Eleganterako trajeak. Horrela kontatu du Oiarzabalek: "Etxeko gortina zaharrekin, ohegaineko ohialekin eta parean harrapatutako tela zatiekin egiten genituen soinekoak. Ahizpa jostuna dut, eta hark egi-



1982an bigarren urtez irten ziren antzinakoz jantzita Jai Karnabalean. Dozena inguru lagun animatu zen mozorrotzera. |||Pepe Gil

ten zizkidan trajeak". Nola janzten ziren gogoratu du Arregik: "Soineko ponpoxoak ziren garai hartan janzten genituenak. Gonak zabalak zein estuak ziren, eta askok bolanteak zituzten. Txaketak, berriz, estuak ziren, sorbaldetako babesekin. Era guztietako kapelak janzten genituen, baita larruzko osagarriak ere; gure amonenak-eta". Antzinako arropak zaintza eskatzen dute, baina gaur egunekoek baino gehiago irauten dutela pentsatzen du Aranburuk: "Etxean dudan gona batek 150 urte ditu, eta erabilgarri dago oraindik". Mendizabalek azaldu duenez, Elegante Eguneko trajeak zein osagarriak sortu ez ezik, elkarbanatu ere egiten zituzten beraien artean. Trukatu egiten zituzten urtez urte, berrerabiltzeko.

Gaur egun joera hori "asko" aldatu dela pentsatzen dute laurek. Haien iritziz, geroz eta neska-mutil gehiagok erosten dituzte egindako trajeak Txikiteo Eleganterako, eta horrek "pena" ematen die. Izan ere, beren aburuz, herritarrek "garrantzi gehiegi" ematen diote itxurari. Dena den, jakitun dira ga-

raiak aldatu direla. "Guri ez zitzaigun bururazten trajeak osorik erosterik, eta beste modu batera ulertzen genuen Txikiteo Elegantea. Baina gauza jakina da pertsona orok ez dakitela josten, eta gaur egun horri denbora eskaintzeko denbora gutxiago dagoela", azaldu du Mendizabalek.

Nola aldatu diren gauzak

Duela hamabost urte baino gehiago utzi zioten Elegante Egunean mozorrotzeari Arregik, Aranburuk, Mendizabalek eta Oiartzabalek, "adinagatik eta beste hainbat kontugatik". Gaur egun Elegante Egunak hartu duen indarra ikusteak "poza" ematen die baina festa nola aldatu den nabaritzeak "pena handia". Oiartzabalen iritziz, lehen herritarrek ez ziren "horrenbeste" begiratzen ispiluan: "Goiza ileapaindegian sartuta igarotzen dute emakume batzuek. Hori aldrebeskeria galanta da. Kanean egon behar da festaz gozatzeko eta ez ileapaindegian". Itxurari ematen zaion garrantziarekin bat dator argazkiak ateratzeko joera. "Jende ugari aprobetxatzen du Ele-

gante Eguna argazki estudioko irudiak egiteko. Hor ikusten da non joaten den batzuen festa eguna". Dena den, seme-alabek beraien joerari eutsi diotela azaldu dute lau emakumeek, eta horrek poza ematen diela azpimarratu dute. "Etxean ikusitakoak badu eraginik", dio Mendizabalek.

Gero eta heldu gutxiago mozorrotzen dela ere pentsatzen dute, 50 urtetik gorako herritarrek irteteari uzten baitiote. Horregatik, adin horretakoak eleganteraz janztera animatu nahi dituzte. Arregik dio berak gaur gaurkoz "inbidia" pasatzen duela Jai Karnabalean, eta edozer jantziko lukeela saltsan murgiltzeko.

Kuadrillak elkartzeko eguna izan ohi da Txikiteo Elegantea. Batzuk bazkaltzera joaten dira, eta beste asko sokamuturrera. "Lehen ez zen horrenbeste jende elkartzeko sokamuturrean. Arratsaldeko zezenaren irteeraren ueña magikoa da", dio Oiartzabalek. "Jendetza kantuan, dantzan eta dotore jantzita".

Festaren sustatzaileen iritziz, Elegante Eguna "gorenera" iritsi da jada, eta tradizioak iraun dezan nahi dute.✳

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	0251 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (OTSAILA)

1-5-12-19-26
Alberdi (Azpeitia).
943815974

6-9-10-15-20-27
Jacome (Azpeitia).
943080258

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Otsailaren 27an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuluskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



BIZIKLETENTZAT.

Bizikleten oinarrizko mantenturako gailua jarri du Gipuzkoako Foru Aldundiak Loiolan, kantinaren ondoan. Bizikletak konpontzeko nahiz gurpilak puzteko behar diren tresnak aurki daitezke bertan.

4-11-16-17-22-25
Aranburu (Azpeitia).
943811350

GAUEZ, URTE OSOAN
Arrieta (Azpeitia).
943811274

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegia osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

LOREN AZKUE

eski monitorea

“tailer batean baino nahiago dut mendian lan egin”

Huescako (Espainia) Canfranc herrian bizi da duela hiru urtetik. Snowboard eskolak ematen ditu. Lehen aldiz, ez da itzuliko etxera negua pasatzean. 📌 **Ihintza Elustondo**

Zer dela eta joan zinen Pirinio-
etara bizitzera?

Lehen, motoan ibiltzen nintzen, baina istripu baten ondorioz, eskua ireki nuen; lasterketa bat falta zitzaidan Euskadiko txapeldun izateko, eta izorratuta egon nintzen. “Zer egingo dut?”, galdetzen nion neure buruari. Lagunekin Andorrara joan nintzen Gabonak pasatzera, eta ikusi nuen jendea oso gustura zegoela han bizitzen eta eski ikastaroak ematen. Pentsatu nuen: “Hurrengo urtean probatu egin behar diat”.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Snowboardeko irakaslea naiz Skicenter eskolan, eta eski ikastaroetan ere aritzen naiz laguntzen. Bezeroen arabera, Astungo edo Candanchuko pistetan ematen ditut saioak. Orain arte, eski denboraldia bukatzean Azpeitira itzultzen nintzen, baina aurtun, lehen aldiz, hemen geldituko naiz. Bizikleta ikastaroak ematen saiatuko naiz.

Nolatan hasi zinen snowboarda praktikatzeko?

Zorte handia daukat ditudan gurasoak izanda. Aita surflaria da, eta hark irakatsi zidan

snowboarda, berak jakin gabe. Artista bat da nire aita, egia esan. Eskerrak eman behar dizkiot; berarengatik nago mundu honetan.

Zer da bizimodu horretatik gehien gustatzen zaizuna?

Mendian denbora asko pasatzen dut, eta hori asko gustatzen zait. Hemen arnasten dudana mundiala da. Urte asko eman ditut tailer batean lanean, eta zer da hobe, dirua ala osasuna izatea? Balantzan jarrita, tailer batean baino nahiago dut mendian lan egin.

Umeekin zer moduz moldatzen zara?

Fenomeno pasatzen dut beraiekin. Egiten dudana lanagatik haiek eskerrak emateak ez du preziorik.

Ezer txarrik ba al du zure lanak?


Egonkortasun falta, eguraldiaren menpe bizi gara.

Aurtun, elur gutxiegi dagoela diote.


Hemengo baserriarrek-eta esaten dute normalean dela, baina uste dut aldaketa klimatikoaren eragina ere badela.

Herria ez al duzu faltan sumatzen?

Ez dut ezetzik esango. Batez ere, letxuga berde hori sumatzen dut faltan.✳



1. Loren Azkue, Astungo eskiatzeko pistetan.
2. Azkue, snowboard egiten. (Yhabril)
3. Azpeitiarrak umeei eski ikastaroak ematen dizkie. Irudian, Azkue haur talde batekin.



Blast

I 967an, antzokiak betiko uztean, kazetari batek jakin-min handiz galdetu zion Jacques Breli zeri egiten zion ihes. Brelek burua makurtu eta gogoeta egin zuen segundo batzuetan eta, gero, gauzak behin eta berri-eriz eta askotan esan behar dituela dakienaren neke berarekin esan zion... 'Inor mugitzen denean, batere mugitzen ez direnek esaten dute ihes egiten ari dela'.

Halaxe nik, nora zihoan ez nekien trenera igo nintzen, larre gozoak ikusi nituen bultzi leihotik, herri txiki eta handiak, soro, sagar, mendiak... Trenbidearen akaberara ailegatu nintzenean, ilunabarrean, oinez hasi nintzen. Ez nuen hirian gelditu nahi, eta basoan barrena sartu nintzen. Eta ibili eta ibili, ilunak harrapatu ninduen, batere uste ez nuela, artaburu hutsa banintz bezala. Ordu arte inoiz ez nuen halako ilunpe beltzik inoiz sentitu, hain betea, hain presentea... ezta galipota ere!

Nire lehen gaua baso ilunean.

Aitaz pentsatu nuen...

Anaiaz...

Amaz...

Nik nekiela, Manzinarretan azkena nintzen.

Ezertarako gauza ez ziren leinu bateko azkena.

Horrek, nolabait, nire bidaia zalantzaz betetako hura berresten zuen.

Inori huts egiteko modurik ez. Ezta inor endredatzeko ere. Kezkatzeko. Edo larritzeko. Familia girgilurik gabe, ni neu nintzen, mugarik gabe.

Aukera ikaragarri handi hark bertigoa ere ematen zuen.

Isiltasuna, eta bakardadea, asmakizun poetikoak dira.

Eta horretaz konbentzitzeko nahikoa da iluntze batean basoan lurrean etzatea.

Bizi likina eta sigi-sagakoak dardar egiten zuen humusaren azpian.


Nire inguruan aditzen nuen, kraska, izerditan, irristaka, oihuka, orroka, tantaka.

Lur bigunak hezetasuna berreskuratzen



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Nora zihoan ez nekien trenera igo nintzen, larre gozoak ikusi nituen bultzi leihotik, herri txiki eta handiak



zuen, eta parasitoz eta ustelkeriaz betetako perfume kiratsa zerion.

Inurritziko lurra, gau-animalia handi bat bihurtu zen, ezusteko izugarri betea.

Egusentiko isiltasun liluragarriaren arrastorik ez zegoen. Freskotasuna etortzearekin batera, mugimendua eroaldi bihurtu zen.

Sabela lurrean, mundua hara eta hona zebilela sentitu nuen.

Lasaitu egin nintzen nire antza zuela konturatu nintzenean, ez zen-eta inoiz baretzen.

Hurrengo egunetan oinez ibili nintzen, herriak eta kaminoak saihestuz, ahal zela.

Pausoz pauso, nire historia atzean uzten ari nintzen, azal zaharra balitz bezala, bestelako ziurtasun berri bat nire jabe eginda.

Irrika ezezagun batez ikusten nuen nire mundu berri hura.

Hankak txindurrituta gelditzen nintzenean, naturaleza kontuz ixten zen nire inguruan, eta ni haren legio isiletakoa egiten nintzen.

Isil-isilik ikasi nuen, inork ezer ez zuen-eta esaten.

Baina blast-a ez zetorren.

Eta edatekorik ez nuen batere.

Ezer ez.

Orduan bai, herri batera joan behar izan nuen.

Denda batera sartu nintzen.

Eskuetan poltsa bana nituela irten nintzen handik.

Botilaz beteak biak.

Jolasean ari ziren neska-mutikoen artetik pasatu nintzen, basora bidean berriz".

Larcenet, M. (2010) *Blast. Koipe bola*. Bartzelona. Norma.*

GRUPO UKABI

ukabi

**a3ERP
Fi**

a3ERP
Fabricación Integral



Zerbitzari eta
Sistemak

inika

Inika Kudeaketa
Akademikoa

eSOFT



Web diseinua



Cloud zerbitzuak



Orraldeko kostua
duten inprimagailuak

Informaticando



Karteleria digitala



Totem eta mahai
taktilak

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943 08 03 55 · esnaelek@outlook.com